

...eta
Kitto!

2019-IV-12

1096 zkia.



APIRILAK 13
ZAPATUA 14:55

Motorrak berotuta hartuko dugu Korrika

ehbildu



**ERA
BA
KI.**

**Eibar
Ekitaldia**

Apirilak 12 · 19:00
Untzaga plaza



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatu.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatu.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren
osasunaz arduratzen garelako**

Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **t** Eta **twitter**ren: @Clinicalrazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobekak. **GALDETU**



IRAZABAL
clínica dental

Julián Etxeberria, N° 12 - 1° - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com



Euskara Elkarte

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18 /
603 598 285.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkarte@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOAK: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA:
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.150 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* k ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETTZA)

eskutitzak

– Eibarko Batukada Feminista parte hartzeko gonbidapena –

Gehienok jakingo duzuen bezala, orain dela urte batzuk Batukada Feminista presente dago Eibarren. Jabetze Eskolako ikastaroek eman ziguten lehenengo urteetan Eibarko emakumeoi batukadara batzeko aukera. Horri esker, urte batzuetan San Juanetan herriko kaleak alaitzen ibili ginen. Ikastaroetan oso gustora ibili ginenez, talde egonkor bat sortzeko nahia sortu zitzaigun; eta egin ere egin genuen.

Hori dela eta, iaz Batukada Talde Autogestionatua sortu genuen Eibarren parte hartzeri animatu ginen emakumeen artean. Musika ikasi eta musikaz gozatzeko tresna paregabea ere aurkitu dugu batukadan. Gure entseguak gidatzera bi irakasle etortzen dira eta, euren bidez, Euskal Herriko Batukada Feminista Sa-

rean parte hartzeaz gain, Euskal Herriko herrietan eta festetan parte hartzeko aukera zabaldu zaigu.

Guretzako horren aberasgarria den eta izan den ekintza honetan parte hartzeri animatu nahi zaituztegu Eibarko emakume guztiak. Horretarako, hurrengo entsegua Untzagako Plazan egingo dugula jakinarazi nahi dizuegu, apirilaren 29an arratsaldeko 18:30etik 20:30era. Kuriositatea edo gogoa izanez gero, animatu eta probatu ezazue, ez zarete damutuko. 29an ezin bazarete etorri, lasai egon, 15 egunean behin entsaiatzen dugu eta, beraz, bi aste geroago ere izango duzue etortzeko aukera. Animatu eta parte hartu, zain izango gaituzue! Ez zaizue damutuko! Gora borroka feminista eta gora Eibarko Batukada Taldea!

Eibarko Batukada Feminista

– Korrika 2019 klika –

Badator korrika gure herrira eta aurtengo abestiari jarraituz

“Hauxe da gure leloa,
posible da klika aldatzea,
elkarren artean konektatzea”

Eibarko Euskal Eskola Publikoko ikastetxe guztieta-ko guraso elkarteek batera korrika egingo dugu.

Apirilaren 13an, 14:45tan San Andres Eskolan jasoko dugu lekukoa eta Ibarburutzeraino abiatuko gara. Euskararen alde Amaña, Arrateko Andra Mari, J.A. Mogel, San Andres eta Urkizuko guraso elkarteak bat eginik.

Anima zaitze eta etorri gurekin korrika egitera!!

Euskal Eskola Publikoko ikastetxeetako guraso elkarteak

OHARRA: Aste Santua dela-eta, datorren astean ez da alerik izango. Hurrengo zenbakia hilaren 26an izango duzue zuen buzoietan.

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MIKAKERIXA. - Mikak egiten duena. Gaztelerazko 'melindre'. "Mikakerixia ugari badarabil behintzat ume horrek".

MILLAGRO. - Gauza handia, sinistu ezinekoa, arraroa. "Millagrua da, eta haundixa, ha diruakin agertzia".

astean esanak

"Herri serio baten moduan ikusten gaituzte kanpoan, hitza betetzen dugun horietarikoak. Argentinan 'palabra de vasco' erabiltzen dute hitzeko izango direla adierazteko. Japoniarrek bagina bezala ere ikusten gaituzte beste batzuek: ordenatuak, hitza eta epea betetzen dugulako. Hori bai, euskara bera erakargarria izanda atzerrian, berezia delako sortzen duen kuriositatearekin, enpresak atzerrian saltzerakoan han erraz ulertzen diren izenak nahi dituzte; hortik ingeleserako joera, nahiz eta izenak euskarazkoak izan"

(M^o ANGELES ELORZA, EJ-KO KANPO HARREMANAK)

"30en, 40en edo 50en krisian bazaude, lasaituko zaitu ETBko ohiko ikuslearen adinera heltzeko zenbat falta zaizun kalkulatzeko: nik 38 urte gutxiago ditut ETBko batez besteko ikusleak baino (64 urte). Kantar Media agentziak neurtutako estatuko kate jeneralista eta automiko guztien artean, ETB da ikusleriarik zaharrena duena, Trece eta BerçaTV elizkoiaren atzetik (67 urte). ETB2 gaztelaniako katearekin hiru urteko aldea dago (61 urte). Inoiz baino ikus-entzunezko eduki gehiago kontsumitzen dugun 18-35 adin-tartekook ez gaituzte kontuan hartzen audientziaren araberako erabakitzen dutenek"

(LANDER ARRETXE, ZUTABEGILEA)

"Prekaritatea miseria da. Horrela bizi dena beti ari da bilatzen nondik lortuko duen soldata osatzea. Eguneko betebeharren harian bizi duenak ez du indarririk sistema zalantzan jartzeko. Noiz ahaldu behar du euskalgintzak 'hau nahikoa da' esateko? Milaka lagun bizi gara euskalgintzara dedikatuta, eta Jaurlaritzako laugarren edo bosgarren mailako funtzionario bat baino askoz okerrago bizi gara. Prekarietateak berak dakar konformismoa eta desideologizazioa. Errebelatzen uzten ez dizun gorpil zoro bat da. Euskal Herriaren ikuspegi batua desagertu egin da, eta zatiketa administratiboa gailendu da"

(PAKO ARISTI, IDAZLEA)

Errefuxiatuendako lentejak batuko dittue Untzagako jubilauetan bixar goizian

Mireia Alonso sukaldarixaren ekimenez, Eibarren 1.000 kilo lenteja pardina jasotzeko bilketia ipiñi dabe martxan, Zaporeak alkartiaren bittartez Lesbosen (Grezia) daguazten erre-fuxiatuerei bidaltzeko. Egunotan herriko toki diferentietan jardun dabe lentejak biltzen eta bixar, barriz, Untzagan egongo dira, 11:00etatik 14:00etara, lagundu nahi daben jendiak erua-ten dittuan lentejak jasotzeko prest. Lentejak ez eze, konpre-sak, umiendako ojaliak eta zapi umelak be gustora hartuko dit-tue, "holakuen premiña haundixa dake eta". Untzagako jubi-



lau etxian, beheko pisuko gelan egingo dabe bilketia eta Ei-barko jubilau etxiak osatzen daben Biztu koordinadorakuak la-gunduko dabe.



Batukada Feministan parte hartzeko inbitaziñua

Eibarko Batukada Feministan parte har-tzera animau nahi dabe jendia eta, asmo horrekin, apirillaren 29xan, 18:30xetatik 20:30xetara bittartian Untzagan egingo da-ben entsegura juateko inbitaziñua zabaldu dabe taldekidiak, "holan nahi daben guztiak Batukadan parte hartzeko eta probatzeko aukeria izan deixen. Kuriosidadia edo gogua izanez gero, jendia probatzera animau nahi dogu, ez jakue-eta damutuko. Eta ezin ba-dabe 29xan etorri berdin detsa, 15 egunian behin entsaiatzan dogu eta, hortaz, aurre-rago be izango da etortzeko aukeria". Tal-

diarekin kontaktuan ipintzeko Facebook (Ei-barko Batukada Feminista) erabilli leike edo, bestela, eibar.batukada@gmail.com helbi-dera idatzi.

laz sortu eben Batukada Talde Autogestio-natua Eibarren eta, diñuenez, "musikia ikasi eta musikarekin gozatziatz gain, talde giro bi-kaiña sortu dogu. Gure entseguak gidatzera bi irakasle etortzen dira eta, beraien bittartez, Euskal Herriko Batukada Feminista Sarean parte hartzeko aukeria zabaldu jaku. Horrerri eskerrak Euskal Herriko hainbat herri eta jai-xetan parte hartzeko aukeria be euki dogu".

Urteko lehen batzarra egin dabe akekidiak

Martitzenian egin eban urteko lehen batzarra Eibarren Akebai plataformiak. Udaletxeko pleno aretuan alkartu ziran akekidiak iaz egindako proiektu eta eki-menen barri jaso eben eta, horrekin batera, aurtan egingo diran beste batzuk ezagutzeko aukeria be euki eben. Azpimarratu zittuenen artian herriko jaixak eus-kalduntzeko asmuarekin martxan ipiñiko daben egitasmua eta sensibilizaziñuari eragittia billatzen daben beste batzuk dagoz.



ANTONIO PEREZ DEL OLMO

2019ko apirilaren 2an hil zen, 92 urterekin

**"Zu joan zara, baina zureganako gure maitasuna ez.
Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza"**

FAMILIAREN IZENEAN, **ESKERRIK BEROENA**
gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi.





Primerako harrera euki eban "Zumbathoiak"

Aurreko ediziñuetan lez, aurtan be arrakastatsua izan da zapatuan Astelena frontoian egindako "Zumbathoiak". Nerea Blasco zumba irakasle eibartarraren eskutik sortu zan ekimenak laugarren ediziñua bete dau aurtan. Oinguan be, sarreren salmentari esker batutako diru guztia AFESD alkartekueri emongo detse, diagnostikau bariko gaixotasunen bat daken umien tratamientuak ordaintzen laguntzeko.



autuan

OTEGI, BILDUREN EKITALDIXAN

Eibarko EH Bilduk bere zerrendia aurkezteko ekitaldixa antolatau dau gaur arratsalderako: 19:00etan izango da, Eibarko Txikiton (Txaltxa Zelaiko auditorixuan) eta, Gorka Errasti alkategaixarekin batera, Arnaldo Otegi egongo da.



"ANDREN IBILBIDEAK"

Apirillaren 25ian (eguenaa) hasiko da "Andren Ibilbideak", emakumieri zuzendutako jardueria. Goizeko 09:45etan udaletxeko arku pietan alkartu eta, hortik abiatuta, bi orduko ibilbidia egingo dabe, bidian lagunduko detsen gidari batek lagunduta. Partehartzia duan da.

Eibarren 1.500 baietz!




ERRENTA AITORPENA, aukeran, EUSKARAZ!

- **Autolikidazio proposamena** onartzerakoan euskaraz egin nahi duzula esan.
- **Mekanizatua egiteko** ordua hartzerakoan euskaraz egin nahi duzula esan.
- **Internet bidez** egitean errenta programaren euskarazko bertsioa jaitsi Internetetik eta hobetsitako hizkuntza atalean euskara aukeratu.
- **Aholkularitzaren** bat aukeratzen baduzu, adierazi euskaraz egin nahi duzula.

EUSKARA BATZORDEA
www.eibar.eus



TUTULUMENDI



IDURRE IRIONDO

Eduardo Zubiaurre hautatu dabe Confebaskeko presidente izateko

Confebaskeko gaur egungo presidente Roberto Larrañagak udan amaittuko dau agintaldia, lau urte beteko dira-eta kargua hartu zebanetik, eta Jaz Zubiaurre SA enpresako arduradun nagusiak hartuko dau bere toki-a, Adegik hautatuta. Eibartar batek beste bati pasatuko detsa lekukua, beraz; Larrañagaren kasuan, bere ibilbide profesionala Araban egin badau be. Zubiaurre, bestalde, Adegiko presidentia izan zan 2006 eta 2012 bittartian eta, oin hautagaixa proposatzeko txandia Gipuzkoako alkartiari tokatzen jakonez, berak izango dau aukeria Confebask patronaleko buruzagitza hartzeko. Confebaskek Bizkaiko Cebek konfederaziñoko, Arabako SEA alkarteko eta Gipuzkoako Adegik alkarteko enpresaburuak osatzen dabe.



Aixola urtegiko zebra-muskuilluak zenbatuko dittue

Aurreko astian Aixola urtegixan aurkittutako zebra-muskuilluak bere ondorixuak izan dittue. Adituen aholkueri jarraituta, hustu egingo dabe presia, neurri batian behintzat, muskuillu inbaditzaillia zenbatean zabaldu dan jakittek. Aurreko egunotan, bestalde, Gipuzkuako eta Bizkaiko diputaziñuak urtegixan arrantzatzia debekatu zeben, bertan egon leikezen larbak beste toki batzuetara ez zabaltzeko asmuarekin. Aurkittutako muskuillua be arrantzaleren batek sartutakua izan leikiela uste da.



1981ian jaixotakuen bazkarixa

Aurten 38 urte bete edo beteko dittuenak aurreko zapatuan alkartu ziran, danak alkarrekin bazkaldu eta eguna jai-giruan emoteko. Egunerako plana Toribio Etxebarria kalia, Ongi-etorri tabernan egindako luntxarekin hasi eben eta, hortik aurrera, ederto pasau eben eguna. Batek baiño gehixagok parrandia goizeko ordu txikitian amaittu eban.

Trafikuan aldaketak eragingo dittu Euskal Herriko Itzuliak

Gaur eta bixar hainbat trafiko aldaketa izango dira, Euskal Herriko Itzuliaren eragiñez: erdigunia trafikuarendako itxitta egongo da bixar eta etzi (gabeko 22:00ak arte) eta bixar ez dabe Toribio Etxebarria kalia trafikuarendako zabalduko. Gaur debekatuta egongo da honako tokixetan aparkatzia: Arrate Biden, Ego-Gainen (hotelaren parian), Azittaingo poligonuaren goiko partian (gaur eta bixar) eta Arrateko santutegi inguruan. Eta bixar, Itzuliak ez eze, Korrikak be ziharkatuko dittu herriko kalia. Ezin izango da aparkau San Juan kalia (alde bixetan), Errebalen, obren inguruan, 5. zenbakira arte eta Trinkete taberna parian, Julian Etxebarria (1-3-5), Bidebarrietan 2-14 zenbakixen artian, Sostotarren 1ian eta Isasi 1ian, zamalanetarako gunian. Eta San Juan kalia trafikorako itxitta egongo da, 16:30xetatik 18:30xetara.

Eskualdeko pentsiodunak manifestaziñua egingo dabe bixar eguardixan



Debabarreneko Jubilau eta Pentsiodunen plataformak deittuta, bixar eskualde maillako manifestaziñua egingo da Eibarren, 12:00-xetan Untzagatik hasitta. Oin arteko bidari jarraituta, 2011. eta 2013. urtietako lan erreformak indargabetzia, jasangarritasun faktoria bertan behera lagatzia, andrazkuak gizonezuekin parekatzia, pensiñuen blindaje konstituzionala, KPla aplikatzia eta gitxieneko pensiñua 1.080 eurokoa izatia eskatuko dabe herriko kaliak ziherrkatuko dittuan manifestaziñuan.



Ipuruako jubilatutxian ospatutxu 100 urtiak Pilar Lopezek

Aurreko asteko eguenian ospatutxu eban urtebetetzia 100 urte egin dittuan Pilar Lopez Sainz, Ipuruako jubilatutxu etxeko bazkidiak. Hori dala eta, Felix Luis presidentiak lora sortada edarra, tarta eta oparixa emon zetsazen, berakin batera egunero kartetan egitten daben lagunekin eta famelixarekin disfrutatzeke. Zorionak!

LAB sindikatutxu Debaldeko ordezkarixen batzarra

Aurreko asteko eguenian batzarra egin eben LAB sindikatutxu Debaldea eskualdeko delegatutxu Eibarren, Arrate Kultur Elkartean. Landu zittuen gaixen artian, bestiak beste, tetsuinguru sozio-polititkia, Hauteskunde Sindikalak, Lan Osasunaren Naziñoarteko Eguna eta Maiatzaren Lehena dagoz. Billeria amaittu eta, jarraixan, eguardixan preso eta iheslarixen etxeratzarixen aldeko alkarrataratzia egin eben Untzagan.





- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

klika eginez



21. korrika
2019ko apirilaren 4tik 14ra
GARESTIK GASTEIZA

Euskara Elkarte



Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

EIBAR	ELGOIBAR
 <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	 <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>

Bulegoa Eibarko erdialdean



24 orduko zerbitzu iraunkorra
☎ 943 20 19 51 | www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea



+ osasun gida

Dentistak



arat
Hertz Klinika

"Hertz osasuneko profesional taldea zure zerbitzura"

T. 943 20 18 51
info@clinicadentalarat.com
www.clinicadentalarat.com
Toribio Etxebarria 4 - 1. EIBAR

UniverSalud
Mutua, konpainia eta kolektibo handien itundutako zentroa



bista eder
clínica dental - hertz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19
www.bistaeder.es

R.P.S. 123/17

Esku onetan egotearen ziurtasuna.
20.000tik gora paziente pozik.
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



EIBAR HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17



GASTESI
Hertz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

Errebal, 9-1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02



hertz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85



IRAZABAL
clínica dental

Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicalrazabal.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7-1. esk. 943-702896

10 urte zurekin Eibarren

25 prestazio doan zuretzako

VITALDENT
Konpromisoa

San Juan, 7
943 821 885 - 690 628 731
www.vitaldent.com

Dietetika/Nutrizioa



NATUR HOUSE

Ainara Iriando Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Mugikorra: 677 551 850

Errehabilitazioa



CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika klinika



abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA
ESTETIKOA

KIRURGIA
ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Fisioterapeutak



ANE MENDIA
970 Kolegiatu zkia.

- INIBATERAPIA
- KIROL LESIOAK
- DRENAJE LINFATIKOAK
- POSTURA ZUZENKETEN TRATAMENDUAK

ARRAQUETA, 20
TEL: 943 53 06 42
ane_mendiá@hotmail.com

FISIOTERAPIA
ZENTRUA

Ginekologia



GINECOLOGÍA
EIBAR

Dra. Laura Martínez
Dr. Alejandro Recas

Tel: 659 56 13 65
San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com

Logopedak

AHOTS-LAN
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA



Isasi, 17 - 1. esk.
943 202691
ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua

Degluzio atipikoa	Arreta arazoak
Disfonia	Berba arazoak
Ikaste-arazoak	Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

----- (Ume eta helduendako) -----

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. esk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

Berba
logopedia

AIDA CORTA ANTÓN

SAN AGUSTIN, 2-4 (B. 2004)
Mobila: 622-629-544
logopeda@berba.es

Ebaluazioa eta tratamendua:

- Hizkuntza
- Mintzaira
- Ahotsa
- Dislexiak
- Entzumena
- Degluzio atipikoa

Okulistak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
www.oftalberdi.com

San Juan 11 - solairuartea
943 20 19 82

Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinikoa

• Presbiziaren kirurgia.

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia



T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746




PODOLOGOA

Maidier Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41



Psikologoak

AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
www.centreamets.com

Coro Ortiz de Urbina - Master Praktika Klinikoa
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua) - Master P.N.L.
Tel. 675 70 68 07 - Trainer



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com



Lorena Izaguirre Garcia
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. esk.EIBAR
Zuberoa, 4ZARAUZ
Tel. 943 831 618



Psikologia klinika eta Psikoterapia zentroa

Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Tel. 943206823 eta 686859023



Tf. 686 85 73 22
moreno_iciar@yahoo.es

Itziar Moreno
PSIKOLOGOA
KOLEG. ZKIA. 1947

GIZENTASUNA ANTSIETATEA AUTOESTIMA ARAZOAK

943 12 02 00
URKIZU, 13 - 1.

ORBEAKO DORREETAN

centro médico eibar



Psikoterapia

RPS: 32/17

FUB
PSIQUIATRIA / PSICOTERAPIA / ALFA EIBAR

FERNANDO URIZAR BARANDIARAN

Medikuntza Psikiatrikoa

Ego Gain, 18 - 1 A (Eibar)
615 71 54 04

Bailen, 9 - 1. esk. (Bilbo)
94 416 49 06

furizar1@yahoo.com



Maitasun doinuak jarraituz

Musikaren garrantzia berebizikoa izan da Rosario Camposen bizitzan. Musika emanaldi baten ondoren ezagutu zuen Asier Mexikon, gero berarekin ezkonduko zen eibartarra; seme zaharrena Nashvillen (Tennessee) jaio zen, musikaren hirian; eta gaur egun musika emanaldiak eskaintzen jarraitzen ditu Eibarren. Bere jatorriaz harro, Mexikotik ekartzen dituen kafe-granoek bere herrialdeko lurrinak igortzen dituzte, aparteko historia eta giza-balio handia duen lurralde baten xarma.

Basamortuari gailendu zitzaion hirikoa

Rosario Campos Torreonen jaio zen, Mexiko iparraldean dagoen Coahuila estatuan. *“Senarrak hiri zatarra dela dio”,* dio barrez. ‘Basamortuari nagusitu zitzaion hiri’ deitzen zaio. *“Nahiko handia da, 700.000 biztanle inguru ditu”.* Meatzaritza eta industriak pisu handia daukate (Lala esnegintza enpresa handiak, adibidez, han du jarduera handiena), eta industriaren garrantzi horren ondorioz ezagutu zuen senarra Rosariok. *“Berak lan egiten duen enpresa euskaldunak ere Torreonen du egoitza”.* Industriak batu zituen Rosario eta senarra, eta musikak egin zuen beste lan guztia.

Autobusetan abesten

Rosariori beti gustatu izan zaio musika eta unibertsitatean komunikazio ikasketak egiten zituen bitartean bere talentua erakusteko aukera izan zuen. *“Torreonen normala da gazte asko autobusetan abesten edo musika-tresna bat jotzen ikustea eta, musika gustatzen zitzaidanez, autobusetan abesten hasi nintzen lagun batekin”.* Urtebete geroago beste gitarra-jole bate-



“Mexicanos aquí” elkarreak saria eman zion Rosariori.

kin ekitaldietan jotzen hasi zen eta horrelako batean ezagutu zuen senarra. *“Berak ez zuen saioa entzun, terrazan zegoen lagun batekin, eta Sabinaren kantu bat abestu genien”.* Elkar ezagutu eta Eibar, Mexi-

**“Todo lo que te viniere
a la mano para hacer,
hazlo según tus fuerzas
y siempre con humildad
y agradecimiento”**

**“Zure esku dagoena,
zure indarren arabera egin,
beti ere umiltasunez
eta esker onez”**



ko eta Amerikako Estatu Batuetan (AEB) zehar maitasun istorioa bizi eta gero, Eibarrera etorri ziren.

Umeentzako ikuskizunak

Zazpi anai-arrebetatik gazteena da Rosario. *“Anai bakarra bizi da Torreonen, besteak AEBn bizi dira”.* Txikitari, umeek hemen egin ohi duten bezala, kalean jolasten orduak pasatzen zituen. Haurtzarorako bizitako poztasun eta zoriona bere seme-alabei igortzeaz gain, Eibarko umeei ere momentu onak pasarazi nahi dizkie. Izan ere, umeentzako ikuskizunak eskaintzen ditu Rosariok. *“Jairen bat dagoenean, askotan, umeak elkarrekin gastronomiko edo jatetxe barruan erdi aspertuta gertatzen dira, eta zerbait dibertigarria eskaini nahi diet. Saio bat egin dut momentuz eta oso erantzun ona jaso dut”.*

Nayaritoko kafea

Esan bezala, komunikazio ikasketak egin zituen Rosariok, baina orain kafea du ogibide. Elgoibarren ingelerazko klaseak eman zituen, baina beste lanbiderik aurkitzen ez zuenez, bere kabuz lan egiten hasi zen. *“Txikitako lagun batek Mexikon kafea saltzen zuela ikusi nuen eta hogeit hamar pakete erosi nizkion”.* Kafea saltzen negozioa egin ahal zuela ikusi eta aurrera egin zuen. *“Familia eta lagunei saltzen hasi nintzen, eta gero eta gehiago murgildu naiz kafearen munduan. Hemen kafe asko kontsumitzen da”.* Rosarioren kafeak Utopia Coffee du izena eta Mexikoko Nayarit estatuko sumendi-lurretan ekoizten da. *“Kafeak puntuaketa altua lortu zuen New Yorken egindako azterketa batean. Berezia da, pestizida barik eta modu organikoan ekoiztua. Goi-mailako kafea da”.*

Gaur gauean jokatu da Plazatik Gaztetxera txapelketako

2. finalurrekoa

Martxoaren 22an Ondarroan hasi zen XVII. Plazatik Gaztetxera bertsolari txapelketako 2. finalurrekoa Eibarren jokatu da gaur gauean. Aurretik, baina, Gaztetxean afaria egingo da, 20:30ean. Bertso saioa, berriz, 22:30ean hasiko da eta honako bertsolariak jardungo dute: Antton Aizpurua, Mikel Iturriotz, Peru Aiertza, Aner Peritz, Oihana Arana eta Aitor Tatiegi. Horietatik hurrengo faserako zeintzuk sailkatuko diren aukeratzeko ardura izango duten epaimahaikideak, berriz, Miriam Juaristi Urizar, Ander Txakartegi Basterretxea eta Jurgi Fuentes Gokoetxea izango dira.

Plazatik Gaztetxera txapelketako edizio honetan guztira 22 bertsolari dabilta, bakarka. Bertsolariak zazpi saio egingo dituzte Ondarroa, Itziar, Mutriku, Zestoa, Elgoibar, Eibar eta Debako gaztetxeetan. Aurtengo finala Debako gaztetxean izango da, apirilaren 27an. Finalerako saioa goiz eta arratsaldean izango da, eta bazkariak eta kontzertuek beteko dute egitaraua.

Txapelketaren 17. ekitaldia izango da aurtengoa eta helburuak hasiera batean jarritakoak direla nabarmendu dute antolatzaileek: "Bertsolari gazteei bertsoarako aukera ematea eta bertsoa gazteen-gana hurreratzea". Txapelketa jokatu den zazpi herrietako eta Oñatiko gazte asanbladetakoa kideak dira antolatzaileak.

Iaz Eibarko gaztetxean egindako bertso-saioaren irudia.



La Salle Astea eta batxilergoko ikasleen agurra



Astelehenaz geroztik Isasin zein Azitainen, ikastetxe bietan jokaturako olinpiadekin ospatzen ari diren La Salle Astea gaur agurtuko dute, La Salle egunarekin.

Bestalde, La Salle Azitaingo Ama Ikastetxeko Hezkuntza Elkarteak maiatzaren 11n, goizeko 11:00etan hasiko den ekitaldiarekin agurtuko ditu 2018-2019 Ikasturtean 2. batxilergoa egin duten ikasleak eta, bide batez, zorionak eman nahi dizkie, "honaino ailegatu izanagatik". Ekitaldi akademikoarekin batera eukaristia eta luntxa ere egongo dira.

Atzo, apirilak 11, Parkinsonaren nazioarteko eguna izan zen. Parkinsona gaixotasun neurodegeneratiboa da, gure mugimenduen sistemari eragiten dio eta mundu guztiko hirurogei urtetik gorako biztanlegoaren %1ek sufritzen du. Bere jatorria ia beti ezezaguna da. Kasuen % 90ean oraindik ez dakigu zergatik gertatzen den. Bestalde, gainerako % 10ak genetika izaten du oinarri. Biofisika Institutuko zuzendari lanetan diharduen Iban Ubarretxena Ikerbasqueko ikertzaileak Parkinson gaixotasunaren aurkako farmako berriak garatzen lagun dezaketen inhibitzaile berriak identifikatzeko ikerketan parte hartu du. Horren arabera, B12 bitaminak Parkinson gaitz hereditarioaren giltzarriko entzima bat inhibitzen duela egiaztatu dute. Ikerketa Cell Research aldizkari ospetsuak argitaratu du



IBAN UBARRETXENA (BIOFISIKA INSTITUTUKO ZUZENDARIA -CSIC-UPV/EHU-):

“B12 bitamina inportantea da Parkinson hereditarioan giltzarri den entzima bat inhibitzeko”

- Legazpiarra jaiotzez, 30 urte eman dituzu Euskal Herritik kanpora. Zer ekarri zaitu berriro Euskal Herrira?

Donostian Kimikako lehen urteak ikasi ondoren, ikasketak kanpoan jarraitu nituen. 30 urte egin ditut kanpoan, Inglaterran, Holandan eta Estatu Batuetan azken 15 urteetan. Ikerketak hemen egiten ditut, baina nire laborategiak New Yorken segitzen dut. Biofisikako Institutua zuzentzea aukera ona iruditu zitzaidan, erronka bat. Gainera bi alaba txiki dauzkatz eta emazteak eta biok Europan eta Euskal Herrian finkatzea ideia ona zela pentsatu genuen.

- Uztailetik diharduzu Leoiako Kanpusean kokatuta dagoen Biofisika Institutuko zuzendari bezala. Zein da zure bete-kizuna?

Institutu mixtoa da, orain dela bi edo hiru urte UPV/EHU-k eta CIS-ek (Consejo Superior de Investigaciones Científicas delakoak) sortutakoa. Baina esan beharra dago Biofisika Unitateak urte mordera daramatzala lanean, Felix Goñik sortu zuenetik. Prozesu biologiko guztien azpian da-

goen fisika neurtzen saiatzen gara hemen, hau da, bizitzarentzat eta organismoentzat garrantzitsuak diren egiturak, indarrak, energiak... ikertzen ditugu. Zuzendari bezala, nire lana, besteak beste, institutuko ikerketa-lerroak proiektatzea eta institutuan jende berria gehitzea da, kontuan hartuta nazioarte mailan zientziak zein norabide hartzen duen. Zientzia guztiz globala da, eta ezin gara aislatu. Beharrezkoa da ikuspegi periferikoa izatea. 100 ikertzaile inguru gaude, Ikerbasque, CSIC eta EHUKoak. Ikerbasque-k Euskadin zientziaren sustapenean egiten du lan, eta hainbat arlotako 239 prestigiodun ikertzaile biltzen ditu.

- Urteak daramatzazu Parkinsonari buruzko ikerketak egiten. Nola hasi zinen lan esparru horretan?

2007 inguruan hasi nintzen Parkinson eta Alzheimer bezalako gaixotasun degeneratiboen inguruan lan egiten. Gaixotasun hauetan, arrisku faktore nagusia pertsonaren adina da. Parkinsona normalean 60 urtetik aurrera hasten da diagnostikatzen. Oso zaila da jakitea zeintzuk di-

ren gaixotasun degeneratiboen zergatiak. Ia ezinezkoa da jakitea ze faktore-kombinazio ematen den gaixotasuna sortzeko. Baina Parkinsonaren kasuan pazienteen %10ak herentziako gaixotasuna izaten du. Paziente hauen genetika ezagututa, dianak identifikatu ditzakezu, hau da, geneak eta proteinak elkarrekin doazenez, posible da jakitea zeintzuk diren mutaturak dauden proteinak eta beraz badakizu non jarri fokoa, kasu hauetan mutazioa baitago gaixotasunaren oinarrian. Konponente genetikoak dagoenean zientifikoek pista garrantzitsuak izaten ditugu gaixotasuna ulertu ahal izateko. Orain dela 20 urte Parkinsona esporadikoa zela pentsatzen zen, hau da, konponente genetikorik ez zuela uste zuten. 2004an euskaldun askoren partaidetza izan zuen nazioarte mailako zientzialari talde batek (tartean López de Munian, Martí Massó eta Ruiz Martínez) LRRK2 entzima eta Parkinsonaren arteko lotura deskubritu zuten. Horretarako Urola bailarako paizenteetan fijatu ziren. Entzima horri “dardarina” izena jarri zioten (dardaragatik). Bisio hori eduki zuten, eta

dardarina deskubritu zutenetik mundu mailan laborategi mordo dago gai horren inguruan lan egiten. Garai hartan ni Alzheimerrean mutaturako entzimekin lan egiten nuen, eta beraz ikertzeko oso gai interesgarria iruditu zitzaidan. Nire ikerketa partikularrean, nik mikroskopio elektronikoa erabiltzen ditut proteinen estruktura determinatzeko. Behin hori jakinda, entzima horren kausa patogenoak prebentzeko farmakoak egin ditzakegu. Urteak daramatzat lanean dardarinaren estruktura ebazteko. Oso handia eta konplexua da, eta urtetako ahalegin horren ondorioz ikusi dugu B12 bitamina inportantea dela entzima horren mutanteak inhibitzeko, eta ondorio onuragarriak izateko.

- Nolako onurak ekar ditzake hipotesi horrek?

Parkinsona sendaezina dela eta zergatiak ez direla ezagutzen esan behar dugu. Fisikoki gertatzen dena da neurona mota batzuk, dopamina sortzen dutenak, hil egiten direla. Dopamina oso inportantea da sistema motrizaren funtzionamendurako. Neurona horiek hiltzearen arrazoia oraindik ez da ezagutzen. Orain arte pazienteei L-Dopa ematen zaie, dopaminaren prekursor natural bat. Denbora batez sintomak arintzen ditu, baina ez du arazoa konpontzen, neuronek hiltzen jarraitzen dute. Terapia hau urteekin inefektiboa egiten da eta gutxi laguntzen du. Gaixotasun degeneratibo batekin 75 urterekin hasten bazara, horrelako terapiak asko laguntzen dute, bizitzako azken urteetan baitzaude. Baina egia da terapia hauek ez dutela sendatzen. B12 bitaminaren garrantziari buruzko gure ikerketan animaliak erabili ditugu, zizareak, euliak eta arratoiak. Animaliei entzima mutatu hau sartzen bazaie dopamina sortzen duten neurona horiek hil egiten zaizkie. Guk ikusi dugu entzima mutatuari hasieratik B12 bitamina gehitzen badiogu, neurona hauek ez direla hiltzen. Entzima horren mutazioek eragin-



Deparkel Debabarrena Parkinson Elkartekoen ate irekien jardunaldia egin zuten eguaztenean. Ardantza kaleko 1. zenbakian dago elkartearen lokala. DEPARKELEN helburua Debabarrenan Parkinson gaixotasuna dutenen eta hauen familien bizi kalitatea hobetzea da. Ematen den arreta integrala da (banakako arreta, familiarra, soziala, terapeutikoa, hezkuntzakoa, laborala, ludikoa, asistentziala, zientifikoa...)

dako heriotza neuronaletik babesten du B12 bitaminak. Dena dela, hau guztia kontu handiarekin hartu behar da. Gauza bat da animaliekin ikusi duguna eta beste bat gizakiekin nola funtzionatuko lukeen.

- Beraz, Parkinson hereditarioan bitamina horrek izan dezakeen eraginaz ohar-tu zarete.

B12 bitamina oso beharrezkoa da eta funtzio esentziala du nerbio sisteman. 50 urtetik aurrera gizakiok dietaren bitartez bitamina hori absorbatzeko ahalmena galdu egiten dugu. Mutazioa edukitzeak ez du esan nahi Parkinsona daukazula. Gure hipotesia da entzima horren mutazioari gainera beste faktore bat gehitzen bazaio, adibidez B12 gutxi daukazula, eragileetako bat izan daitekeela gaixotasuna gertatzeko. Sekulako aurrerapausoa da, izan ere, animalia-ereduetan neurobabesletzat

jardun duen bitamina horren mekanismoak egun dauden inhibitzaileen mekanismoarekin zerikusirik ez du; hori dela-eta, LRRK2 entzimaren aldaera patogenikoei lotutako Parkinsonen gaixotasun hereditarioaren aurkako terapia berriak garatzeko oinarritzat erabil liteke. Dena dela, hori hipotesia da, eta ez du esan nahi frogatuta dagoenik. Ardurarekin hitz egin behar da gauza hauetaz. Gertatu daitekeen gauza txarrean da orain mundu guztia B12 bitamina hartzen hastea da. Alarma soziala sortu daiteke. Oraindik gauza asko daude egiteko. Mekanismo edo substantzia bat lortzen denean, hori guztia egiaztatzea oso konplexua da. Bestalde, datuak egongo direla ziur gaude. Orain, mutazio horretatik eratorritako Parkinsona eta B12 bitamina eskasia dutenen datu horiek lortu eta alderatu nahi ditugu.



FELIPE JAVIER ARRIZABALAGA MARDARAS

2019ko martxoaren 31n hil zen

“Zu joan zara, baina ZUREGANAKO GURE MAITASUNA ez. Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza”



*imanol magro*

Gibela

Ez erosi gibel haragirik asteburu aldera. Tira, edo bai, nahi baduzue bai, baina jakin dezazuela ez direla izaten egunik aproposenak. Txahal gibela ari naiz, garai batean 'txiroen xerra' esaten zitzaion horri buruz. Asteburuan bila baldin bazoazte, gainera, kostako zaizue harategietan aurkitzea, ordurako, gehienetan, agortuta egoten delako. Azalpena erraza da, normalean harategietan asteartean jasotzen dituzte pieza handiak, eta gibela bizkor agortzen zaie, jendeak honezkero badakielako ahalik eta freskoen kontsumitu behar dela. Ahal bada, erosten den egunean bertan.

Gibela, izan ere, gihar haragia baino okerrago zahartzen da. Eguna pasa ahala mikazteko arriskua du. Ez du zertan txarra egon, baina zaporean bai eragiten diotela egunek, eta hortik presa hori. Gibel kontsumoak behera egin zuen duela urte batzuk, baina berri ere gora egiten ari da. Garai batean anemiaren aurkako boti-

Lokal huts kopurua handitzen doan arren, denda txikiak dira herria pizten eta jakintsuago bihurtzen gaituztenak, merkatalgune handiekin konparatuta

ka bezala gomendatzen zen, burdin asko duen haragia delako. Prezioz ere gihar haragia hobeto egon ohi da. Hori bai, dena ez da pagotxa, kolesterola altu duen jendeak tamainan jan beharra dauka, beste barrukiekin gertatzen den bezala.

Jakin dezazuela ez naizela inoiz harakin izan, eta ez, ez dut Google ezer bilatu, eta aspaldian ez naiz joan medikura. Baina ezta beharrik ere, goiko jakinduria dosia auzoko harakinak eman zidako. Larunbat goiz batean joan eta kasu egiten zidan bitartean eman zizkidan azalpenak. "Gibela larunbatean, ez hemen, ez inon", esan zidan. Kostata jasoko dugu halako informaziorik merkatalgune handietako plastikozko estalkietan. Denda txikien sekretua da, gertutasunak duen xarma, eta balio erantsia. Lokal huts kopurua handitzen ari den garai batean denda txikien aldarria egin behar da, herria pizten dutelako eta gu jakintsuago bihurtzen gaituztelako.

*marisa cid*

Zu barik

Zu barik ezin izango nintzateke bizi. Goizero esnatzeko eta ohiko beharrei aurre egiteko behar zaitut. Zu barik ezingo nintzateke mugitu. Ibiltzeko, pentsatzeko edota hitz hauek idazteko behar zaitut. Biziki maite dut zugan murgiltzen naizen uea eta zure gozotasuna sentiarazten didazun tartea. Era berean, zure indarrak hunkitu egin nazake; haatik, batzuetan, suntsitzeko daukazun gaitasunak beldurtu egiten nau.

Izugarri gustuko zaitut zelaidietan patxadaz paseatzen duzuean eta baita aldapan behera ero baten pare korrika egiten duzuean ere. Noizean behin, zure gardentasunak nire irudia itzultzen dit: zenbat eta gardenago, orduan eta zoriontsuago ikusten dut nire burua; noizbehinka, ostera, ez didazu nire irudirik itzultzen eta negar-malko bat nire masailetik irristatzen da eta zurekin batera urtzen da.

Zure maitasuna lore sorta baten ikusi dut. Edozein lekutara begiratzen dudala zure emankortasuna mirets dezaket. Zuhaitz zo-

Gure bizimodua ez da jasangarria eta geure buruari nola jokatzeko ari garen galdetu beharko genioke, planetaren etorkizuna ez zapuzteko

ragarrietan, animalia ederretan eta paisaia liluragarrietan ez ezik, belar nimiño baten ere ikusten zaitut.

Momentu honetan munduan zazpi mila milioi eta erdi biztanle gaude gutxi gorabehera eta bakoitzak bere harremana du zurekin. Batzuetan arduraz eta errespetuz betetako erlazioa da; beste kasu askotan, zoritxarrez, guttiz kontrakoa da eta pozoiz hutsa bihurtzen zaituzte. Baina, zurekin zintzo jokatzeko ez badute, zure aurpegi txarra erakutsiko duzu eta gure gizarte harroputz eta lotsagabea aitaren batean desagertaraziko duzu.

Gaur egun, badakigu gure bizimodua ez dela jasangarria; hala ere, gutariko bakoitzak keinu txiki bat egingo balu, etorkizuna aldatu ahalko genuke. Beraz, egoera larri honetan, gogoeta egin dezagun: geure buruari nola jokatzeko ari garen galdetu beharko genioke eta egunero zer egiten ari garen, etorkizuna ez zapuzteko.

Aurreko martxoaren 22an zure eguna izan zen. Zuk badakizu maite dudana (h)ura zarena. Zorionak laztana!

Klika egiteko korrika

Euriari, elurrari eta haizeari aurre egin ondoren, Eibartik pasatuko da bihar 21. Korrika. Arratsaldeko eguzkiaren berotasuna nahikoa ez bada, egunean zehar herria jendez beteko duten ekintzek modu ezin hobean girotuko dute euskeraren festa, urte birik behin Euskal Herriko txoko guztiak euskeraren bitartez lotzen dituen antxixiketaldia. Bi mila kilometro baino gehiago euskeraren alde, adin eta mota guztietako milaka partaiderekin, gau eta egun gelditu gabe.

Euskal Herriko Itzuliko txirringulariei agur esan eta minutu gutxira sartuko da bihar Korrika Eibarren. Lehen lekukoa 14:55ean hartuko du Eibarko AEK-k Azitainen eta Barrena, Urkizu, Bittor Sarrasketa, Errebal, San Juan, Untzaga, Calbeton, Bidebarrieta, Urkizu, Arragueta, Errebal, Toribio Etxebarria, Untzaga, San Andres Pasealekua eta Amaña zeharkatuko ditu Korrika lasterketak Ermura joateko.

Coral Calvo Eibarren Korrikako ardura-dunak aipatu digunez, *"gero eta jende gehiagok eraman nahi du lekukoa"*. Izan ere, Igor Elortza bertsolariak aste honetan Twitterren esan duen bezala: *"Andy Warholek denontzat iragarri zuen ordu laurdeneko fama, Euskal Herrian, Korrikaren lekukoa bizitzan behin gutxienez eroatea da"*. Aurten, beraz, inoiz baino jende gehiagok eramango du lekukoa Eibarren, 43k hain zuzen ere. Herrian zehar egingo den ibilbidea ikusita, lekuko batzuk 50 metro inguruak izango dira, baina antolatzaileek ahalik eta jende kopuru handienaren partaidetza bultzatu nahi izan dute.

Korrikak Eibar zeharkatzen duenean giro paregabea sortuko du, baina herriko abeslari, musikari eta bestelako taldeek ere eguna gehiago girotuko dute ibilbideko hainbat puntutan.

Txillardegiren omenez

Klika egin dute egun hauetan Euskal Herriko milaka lagunek eta klika egingo dute bihar Eibarren Korrikarekin bat egingo dutenek. Handik Gasteizeraino jarraitu-



ko du euskeraren aldeko ekimen erraldoiak, Arabako hiriburuan amaituko baita etzi Korrika, baina euskal gizarteak klik egingo du ordurako, euskeraren aldeko hautua. Korrikako antolatzaileek dioten bezala, konpromisoak hartzeko garaia delako. *"Klika, etorkizunera salto egiteko. Klika, Korrika"*.

'Klika' da 21. Korrikaren goiburua. *"Euskararen aldeko hautua egiteko eta euskararen aroarekin bat egiteko deia"*. Asmo hori ekarriko dute Garestik hilaren 4tik eskuz esku joan den lekukoarekin eta Gasteizen azken pausoa eman ondoren, kilometro guztietan bildutako indarrarekin euskerari bultzada ematea espero da.

Aurtengo Korrikako omenduak, Jose Luis Alvarez Enparantza 'Txillardegik', bere sasoiari klika egin zien euskerari, literaturari eta herriari, besteak beste. *"Txillardegik da, askorentzat, gerra ondoko Euskal Herrian izan zen belaunaldien arteko etnaren protagonista nagusietakoa"*, diote Korrikaren antolatzaileek. Euskera batuaren 50. urteurrena da aurten eta Txillardegik euskera batuaren alde egindako lana goraiatu nahi izan du Korrikak. *"Txillardegiren kezka nagusia zen aldarrikatzea herriak hizkuntza beharrezkoa duela eta Euskal Herriak euskara ezinbesteko ezau-garria duela"*.

Amaierako jaiak Gasteizen

Txillardegik omendu duen Korrikak izan duen erantzuna paregabea izan da eta antolatzaileek tamainako amaiera ekitaldia antolatu dute etzirako Gasteizen. Azken lekukoa 12:30ean sartuko da Andra Maria Zuriaren plazan, 2.500 kilometro egin eta gero, eta orduan jakingo dugu hamaika egunetan zehar esku esku joan den lekukoak gordetzen duen mezua zein den. Ondoren, 14:00etatik aurrera, Libe, Triko-ma, Koban eta Gogo-Goza musika-taldeak Foru plazan egongo dira; eta Mice, Konpost eta Ene Bada! Buruileriak plazan. Gainera, Enparantza Berrian magia, tailerrak eta akobrazia ikuskizunak egongo dira; Aihotz plazan dantza eta bertso saioak; Landatxo kiroldegian herri-jantokia egongo da; Probintzia plazan ekoizle arabarren azoka eta txotxongilo ikuskizuna; eta Posta kalean herri- eta artisau-azokak eta photocall-a, besteak beste.

Korrikaren amaierako jaira joan nahi izanez gero, Eibarko AEK Euskaltegiak Gasteizera joateko autobusa antolatu du. Irteera 10:15ean izango da, Untzaga plazatik eta bueltako autobusa 19:00etan hartuko da, Gasteizen. Prezioa 9 eurokoa izango da. Izena-emateko AEK Euskaltegira deitu (943 20 13 79) edo eibar@ae.eus helbidera idatzi.

Korrika Kulturala

'Plazara Dantzara' gaur Bizikleta plazan

Azken asteotan hainbat ekintza egin dira Korrika Kulturalaren inguruan eta gaur egingo da azkena. Bizikleta plazak 'Plazara Dantzara' erromeria jasoko du 20:00etatik 21:30era (euria eginez gero, udaletxeko arkupeetan egingo da). Patxi Montero izango da dantza-gidaria eta Alboka musika taldeak (Joxan Goikoetxea eskusoinuarekin, Arkaitz Miner arrabita eta mandolinarekin, eta Juanjo Otxandorena bouzoukiarekin) girotuko du saioa.

Nola parte hartu?

Ezin duzu antxixiketan egin, baina Korrikan parte hartu nahi duzu? Horrela egin dezakezu:

- Antolaketan parte hartuz:
Zure herrian edo auzoan eratuko den Korrika Batzordean parte hartuz.
- Diruz lagunduz:
 - KORRIKA laguntzailea izanez (12 euro) eta 21. KORRIKAko materiala erosiz.
 - Herriz herri egingo den KORRIKAren aldeko diru-bilketan lagunduz, edo KORRIKAren izenean Laboral Kutxan zabalduko kontu korrontean nahi den ekarpena eginez (ES70 3035 0072 02 0720037810)
 - Lekukoa familiarekin, elkartekideekin, lagunekin... eramanez eta ekarpena eginez.
- KORRIKAren berri emanez eta bere ospea hedatuz:
 - KORRIKAren webgunea bisitatuz (www.KORRIKA.eus) eta KORRIKAren aldeko sare sozialetan parte hartuz.
 - KORRIKA Kulturalak antolatuko dituen ekitaldietan parte hartuz.
Enpresa eta saltegiertzat:
 - KORRIKA iragartzeko euskarriak babestuz.
 - KORRIKAlaria eskuratuz zein KORRIKA laguna izanez.

www.korrika.eus
 f t i s

21. korrika

Bukaera

JAIJA

GASTEIZEN

apirilaren 14an

12:30
 Andra Mari Zuriaren plaza

KORRIKAREN BUKAERA

HERRI-BAZKARIA
 PHOTOCALL-A
 TONBOLA
 KORRIKAREN
 AHIZPEN ERAKUSKETA
 DANTZA PLAZAN
 KALE-ANIMAZIOA
 EMAKUME
 BERTSOLARIAK
 UMEENTZAKO
 JOLASAK
 LIBE
 MICE
 KOBAN
 HARRESIAN ZULO

ARTISUAUK
 EKOIZLE ARABARRAK
 HERRI-MUGIMENDUAK
 KLIKA GARAGARDOA
 AKROBAZIA EMOZIONALA
 KIDAM MAGOA
 JOALDUNAK
 KORRIKA DENDA
 TXOTXONGILOAK...
 BARATZA ARETOA
 DJ PORRU

Klika

Klika
 21. korrika
 2019ko apirilaren 4tik 14ra
 GARESTIK GASTEIZA

GURIDI RUGBY

euskararekin bat

Klika
 21. korrika
 2019ko apirilaren 4tik 14ra
 GARESTIK GASTEIZA

LOURDES URZURIAGA

MAPFRE ASEGURUAK

Sostoa, 1 943 82 04 49

euskararekin bat

IBONE ESTETIKA

R. Galdos, 10
 943 20 16 01


Klika
 21. korrika
 2019ko apirilaren 4tik 14ra
 GARESTIK GASTEIZA

AMAÑA HERRI IKASTETXEA

klika eginez

Artegieta, 6 688 68 72 89

Klika
 21. korrika
 2019ko apirilaren 4tik 14ra
 GARESTIK GASTEIZA



- | | | |
|----------------------------------|--|------------------------------------|
| 1- AEK | 16- Astixa | 30- Urkizu gurasoak |
| 2- El Corte Ingles | 17- Arrate Kultur Elkarte | 31- J.A. Mogel gurasoak |
| 3- Codesyntax | 18- PSOE | 32- Dendarien Elkarte |
| 4- Kirol taldea | 19- PNV | 33- Eibar K.E. |
| 5- Tekniker | 20- EGI | 34- Klub Deportiboa |
| 6- Ego-Gain Borroka Antolakuntza | 21- Podemos | 35- Euskal Bizikleta Kirol Elkarte |
| 7- Hanka Motxak Bertso Eskola | 22- EH Bildu | 36- Sostoa abesbatza |
| 8- Euskara Batzordea | 23- Etxerat | 37- Aspe |
| 9- Gazte Mugimendua | 24- Mirentxin | 38- Gure Esku Dago |
| 10- ...eta kitto! | 25- Iosu, Pana, Arrate, Anjel eta Patxiren lagunak | 39- Legarreko Jai Batzordea |
| 11- Eibar BHI | 26- LAB | 40- Udaleko langileak |
| 12- BHI Gurasoak | 27- J.A. Mogel | 41- Amañako Jai Batzordea |
| 13- Eibar Rugby Taldea | 28- San Andres eskola | 42- Armeria Eskola |
| 14- Akebai | 29- San Andres gurasoak | 43- Uni Eibar-Ermua |
| 15- Euskadiko Kutxa | | |

bihar ere KORRIKA rekin



Klika
21. korrika
klika eginez



Eibarren
AKEBAI

IES UNIBHI
EIBAR-ERMUA

zapatuan ere Korrikarekin



klika eginez

Otaola, 21
943 20 84 44
www.uni.eus



Korrika Txikia

Lehen klika Korrika Txikian

Giro paregabeen ospatu zuten joan den barixakuan Korrika Txikia Eibarko ikastetxeetako ikasleek. La Salle Isasi parean ekin zioten antxitxiketaldiari eta herriko ikastetxe guztiek eskuz esku lekukoa pasatu ondoren, Untzagan elkartu ziren ikasle guztiak. Bertan, lekukoaren barruan zegoen mezua irakurri zuten eta, ondoren, ikastetxeetako ordezkariak taula gainera igo eta aurtengo Korrikaren abestia abestu zuten. Gainera, ikasleen dantza eta koreografiak ere izan ziren, eta Arno DJ-aren musikarekin agurtu zuten jaia.



ARGAZKI ETA BIDEOAK IKUSTEKO:
etakitto.eus



euskararekin bat



Klika
 aek
 21. korrika
 2019ko apirilaren 4tik 14ra
 GARESTIK GASTEIZA

www.elortzabotika.com
 online denda

J. Gisasola, 18
 943 20 61 00

klika eginez



J.A. Mogel
 Ikastola



Klika
 aek
 21. korrika
 2019ko apirilaren 4tik 14ra
 GARESTIK GASTEIZA

Lizarteko Iñigo Elosegik zeraman 1 dortsala justifikatu zuen Valenciaga Oroitzarrean

Zierbenako txirrindulariak aurrera jo zuen helmugarako hiru kilometroren faltan eta 26 segundoko aldea atera zion Roger Adria taldekideak eta beste bost txirrindularik osatutako seikoteari; hor ziren baita Caja Ruraleko Juan Fernando Calle eta Eusebio Pascual ere. Valenciaga Oroitzarrearen 48. edizioaren gakoa Ixuako igoeran egon zen, etapa guztia ikusgarria izan bazen ere, eta zaletuek gozatzeko aukera izan zuten Espainiako Koparako baliagarria zen zazpigarren probarekin. Irabazlea 23 urtetik azpiko Espainiako txapeldun da gaur egun eta hirugarren postuan helmugaratu zen Adria taldekideak berrindartu egin du Espainiako Kopan duen lidergoa. Juan Fernando Callek irabazi zuen mendiko sailkapena eta Lizarte irabazlearen taldeak taldekakoa. Tarteko helmugetan Baqueko Oier Iburguren izan zen

onena eta esprint berezien saria Grupo Euleneko Aritz Kortabarriarentzat izan zen.

Itzulia gurean erabakiko da

Gaur Arrigorriagatik Arrateraino etorriko da Itzuliaren tropela (zaila izan arren tropela osatzea Arrate gainean, ez bada atzean geratzen direnena). 17:30ak bueltan amaituko den etapan zazpi mendate igoko dituzte eta oraingoan lehenengo igoera egingo dute bide zailenetik, Matsariatik, "gero jarraipen-tarteak izateko Trabakua, San Pedro eta Areitiotik", azkenean bide normaletik igotzeko. Biharko etapa, Itzuliaren azkena, 14:10ak aldera hasiko da Untzagan eta 17:30ak bueltan amaituko T. Etxebarria kalean. Azurki izango da etapako mendate gogorrena eta Karakateko tarteak izango da edizioaren berritasun handiena.



Elozegi lasterketa amaitu ondoren. Ramon Beitia



Avia Eibar Saskibaloia maila igotzeko azken aukeraren aurrean

Aurreko asteburuan maila igotzeko aukera bi zituzten eibartarrek, baina bietan kale suertatu zen: Avia Eibarrek galdu egin zuen Ipuruan Getariako Ketarekin 57-62 eta Saski Axular Larramendiren kantxan irabazteko gauza izan zen. Oraingoan euretako batek gora egingo du eta besteak hurrengo denboraldiari itxaron beharko dio: zirt edo zart egingo duen partidua domeka goizean jokatu da Donostian, 09:45ean hasita, eta Avia Eibar Saskibaloiak badu alde pixka bat, partidua galdu dezakeelako baina beti ere zortzi puntu baino alde txikiagoarekin.

11 dominekin bueltatu ziren Deporrek atleta gazteak Gipuzkoako txapelketatik

Aurreko asteburuan Arrasaten jokatutako Gipuzkoako Txapelketaren bigarren jardunaldian, Imanol Egidazu Eibarko Klub Deportiboko ordezkariak pertika eta pisu jaurtiketa probak irabazi zituen, Urko Martinezek altuerakoa eta Aiora Unzetak vortex-ekoa. Ho-

rez gain, Egidazu bigarren izan zen 80 metroko lasterketan, Pello Osoro altueran eta Ekhi Muruamendiaraz vortex-ean. Eta brontzeko domina eskuratu zuten Ugaitz Fernandezek 60 metrotan, Alexander Martinek vortex-ean eta Pello Osorok pisuarekin.

I. Eibar-Deba lasterketa jokatu da maiatzaren 4an

Proba berria abiatuko da aurten, 21 kilometro izango dituen Eibar-Deba lasterketa, maiatzaren lehenengo domekan jokatu beharrekoa. Izena emateko epea martitzenean, apirilaren 16an, zabalduko da eta 28ra arte iraungo. Herri-kros hori Untzagatik abiatuko da 16:30ean eta, maila bakoitzari dagokion sariekin batera, beste bat izango da Eibarko lehenengoarentzat. Bestalde, aurreko asteko zapatuan jokatutako Kili-mon Trail gogorrean Ander Barrenetxea eibartarrak 4. postuan amaitu zuen (2 ordu, 5 minutu eta 49 segundo) 23 kilometroko proba, Josemari Bernedo 22. izan zen (2:19:14), Igor Atxa 52. (2:31:30) eta Santi Santamaria eta Xabier Arrieta 71. eta 72., hurrenez hurren. 11 kilometrokoan, bestalde, Josu Rementeria 28. izan zen (ordubete, 3 minutu eta 3 segundo), Bittor Lucena 29. (segundo bakarrera), Javi Arqueda 65. eta Antonio Vazquezek 68. postuan amaitu zuen.



Urbat waterpoloko talde nagusi biek hiru lehenen artean amaitu dute Liga

Gizonezkoen taldeak 7-20 irabazi zion Donostian Fortunari denboraldi erregularrako azken jardunaldian eta Euskal Herriko liga bigarren postuan amaitu dute, Claret Askartzaren atzetik. Eibarko taldeak 14 partidu irabazi ditu, bakarra berdindu eta hiru galdu eta, liderrarengandik sei puntura amaitu badu ere, WP 9802 hirugarrenari zortzi puntu kendu dizkio. Guztira 84 gol gehiago sartu ditu hartutakoak baino. Azken jardunaldiotan, gainera, Xabier Egidazu, Haritz Otero, Unax Unzeta eta Xabier Varela kadeteek senior mailako taldearekin debutatu dute. Den-

boraldia errematatzeko Espainiako txapelketa eta Euskal Herriko play-off-ak izango ditu zain orain Davide Cerchiren taldeak: "Topera izango gara bi lehiaketa horretan". Emakumezkoen taldeak, bestalde, 7-4 galdu zuen Leioan Askartzarekin jokoan ezer ez zegoen partiduan, "aurretik ere Eibarkoek sailkapeneko hirugarren postua ziurtatua zutelako eta bizkaitarrek laugarrengoa". Hauek ere orain gizonezkoen lehiaketa berberak izango dute zain eta hor biribildu nahiko dute orain arte egindako denboraldi handia.

Asteburu honetan, azkenik, Urbateko in-



fantil mailako hiru jokari izango dira Euskadiko selekzioarekin Espainiako txapelketan parte hartzen. Paul Alberdi, Ander Treviño eta Miren Urizar izango dira Euskadi ordezkatzeko.

Gaurtik etzira arte lehiaketa handiak izango dituzte Ipuruako gimnastek



Euskal Ligan parte hartu duten Ipuruako gimnasta federatuak.

Guadalajarak hartuko ditu estatu mailako txapelketa biak. Gaur oinarritzko taldeen Kopa torneoak jokatuko dute jubenil eta infantil mailako taldeek, biek ere bost pelotekin egin beharreko ariketarekin. Jubenilen taldea Euskadiko txapel-duna da eta podiumera igo da orain arte jokatutako lehia guztietan eta infantil mailakoak lehenengoak izan ziren Leioan jokatutako Euskal Ligako bigarren fasean. Domekan Alaitz Aranbarri, Nahia Arguiz, Arrate Baroja, Nahia Gonzalez eta Jennifer Hernandezek osa-

tutako boskoteak taldekako Espainiako Kopa jokatuko dute, bi aro eta hiru maza parekin; azken talde hori lehen postuan dago Euskal Ligan eta zilarrezko domina lortu zuen Donosti Torneoan.

Amateur mailako Ipuruako gimnastek ere maila bikaina erakutsi zuten Gipuzkoako txapelketarako bigarren kanporaketan. Jubenil A mailako taldea bigarren izan zen eta kadete B mailakoa hirugarren parte hartu zuten 16 taldeen artean. Aipatutako talde bi horiek finala jokatuko dute maiatzaren 19an.

Eibar Eskubaloiko senior mailako hirurak garaile azken jardunaldian

Plenoa lortu zuten Eibar Eskubaloiko talde nagusiek, partiduak gainera eroso irabazita. 1. Maila Nazionalen Somos 31-24 nagusitu zitzaion postu bat aurretik zuen Zaragozako El Pilar Maristasi eta orain eibartarrak sailkapeneko 8. postura igo dira; 11 golen aldeaz ere izan ziren eibartarrak eta zaletuek, behingoz, neurketarekin lasai gozatzeko aukera izan zuten. Emakumezkoen taldeak ere erraz irabazi zion Gasteizeko Corazonistas taldeari eta ligako bigarren faseko txapelkunak izan dira. Galtzen hasi baziren

ere, atsedenaldirako bost goleko alde zuten eibartarrek, azkeneko 11koarekin amaitzeko (28-17). Gizonezkoen bigarren taldeak, bestalde, derbi polita jokatu zuen Elgoibarraren aurka, azkenean 26-22 irabazteko; garaipen horrek, dena dela, ez dio balio izan igoera fasea jokatzeke txartela lortzeko.

Harrobiko taldeei dagokienez, infantiletan lau garaipen eta berdinketa bat lortu zuten Eibar Eskubaloiko taldeek: Hierros Servandok Zumaiako Pulpori (19-17), Bossak Elgoibarri (33-13), Bengoak Pulpori



Eibar Eskubaloia emakumezkoen talde nagusiak fasea irabazi du.

(16-12), Urkotronikek Legazpiri (22-26) eta Ametsak 16na Usurbilen. Jubenil eta kadete mailako nesken taldeek ere

irabazi egin zituzten euren partiduak; ez zuten zorte bera izan kadete mailako mutilen talde biek.



Katete 1. mailako Urki A.

Urkiko talde gazteak maila igotzeko asmoarekin

Kadeteen 1. mailan jokatzeko duen Urki A taldea lider da liga amaitzeko lau jardunaldiren faltan, bigarrenari hiru puntuko alde ateratzen dionean. Azken jardunaldian Aretxabataletari 0-3 irabazi zion, sendotasuna erakutsiz berriro ere. Gauza bera esan daiteke infantil mailako Urki B bigarren taldeari buruz, hau ere lider baitago igoera fase-

ko bere multzoan, bigarren sailkatuari lau puntuko alde kenduz liga amaitzeko bi jardunaldiren faltan. Azken jardunaldian 1-9 irabazi zioten eibartarrek Aralar Intxurreri. Aipatutakoez gain, Erregional 1. Mailan jokatzeko duen Urkiko talde nagusiak 2-0 irabazi zion Usurbili igoera faseko azken jardunaldian.

Pilota modalitate berriak eskainiko ditu Astelenako gaurko jaialdiak

Eibarko Pilota Batzordeak ahalgin handiz lortu du pilota erakustaldi bikaina gurera ekartzea, bi partidurekin osatutako jaialdirako. Gaur 19:00etan hasiko den egitaraua honako partiduek osatzen dute: adimen urritasunaren modalitatean, Leire Esnalek eta Joseba Al-tunak Lander Ortega eta Jurdan Arakistainen aurka jokatuko dute; eta gurgildun aulkien modalitatean, Joseba Lasak eta Beñat Lizasok Javier Etxezarreta eta Asier Navaridasen kontra. Ia barixakuero antolatzen dituzte pilota jaialdiak pilota batzordekoek, pilota eskolakoei aukera emanez denboraldian zehar izandako progresioa erakusteko.



Arkaitz Rodriguez nagusitu zen Asola Berrin jokatuako jardunaldian.

Asola Berriko bolatokia ez zen hain ona izan eibartarrentzat

Aurreko zapatuan Asola Berri hartu zuen hirugarren jaurtialdia, euriaren arriskuegatik Soraluzeko San Andres ordezkatzu. 61 bolarien parte-hartzea hartu zuen tiraldian Arkaitz Rodriguez eibartarra nagusitu bazen ere, San Migueleko Angel Ibarluzearekin eta Udalako Jose Mari Gorosabelekin sei txirlorekin berdinduta, sailkapen orokorrean Ibarluzea elgoibartarrak ihes egin dio Ganix Rodriguez eibartarrari eta orain hiru puntuko alde dago euren artean. Emaku-

mezkoen sailkapenean berdinduta jarraitzen dute Asola Berriko Sonia Gomez eta Nerea Arano markinarra, eta bikoteka zein taldeka Eibarko ordezkariak bigarren dira orain (Alex Campos eta Sergio Rodriguez liderrengatik puntu bira eta Asola Berri A San Miguelen-gandik hirura, hurrenez hurren). Nagusietan, azkenik, Bittor Astigarraga hirugarren dago sailkapenean. Biharko jaurtialdia, Gipuzkoako txapelketaren laugarrena, Azkoitiko Floregan jokatu da, 17:00etan.

ASTEBURUKO AGENDA

FOBALLA

1. Maila

Real Sociedad - Eibar (domeka, 16:15)

Emakumezkoen 2. Maila

Oliver - Eibar (domeka, 12:00)

2. B Maila

Vitoria - Logroñes (domeka, 17:30)

Emakumeen Ohorezko Erregional Maila

Touring - Eibar (zapatua, 15:30)

Ohorezko Erregional Maila

Tolosa - Eibar (zapatua, 16:30)

1. Erregionala

Segura Goierri - Urki (zapatua, 16:00)

JUBENILAK

Euskal Liga

Eibar B - Añorga (zapatua, 18:00)

KADETEAK

Euskal Liga

Romo - Eibar (zapatua, 12:00)

FOBALL-ZALETUA

Ipur Sagardot. - Durango (zapatua, 09:00)

Azkena Adahi - Slow XOK (zapatua, 10:30)

G. Garcia - Los Paisanos (zapatua, 12:00)

Bar Areto - Chic (domeka, 09:00)

Feredu - Bar Txoko (domeka, 10:30)

Larragest - JMR Erreform. (domeka, 12:00)

ESKUBALOIA

1. Nazional Maila

Ereintza - Somos (zapatua, 19:30)

SASKIBALOIA

3. Maila

Saski Axular - Avia Eibar (domeka, 09:45)

PILOTA

Kirol Egokitua (adimen urritasuna)

Esnal/Altuna vs Ortega/Arakistain

Kirol Egokitua (gurgildun aulkia)

Lasa/Lizasos vs Etxezarreta/Navaridas (barixakua, 19:00, Astelenan)

KIROL-AGENDA OSOA
etakitto.eus HELBIDEAN

*asteburuko emaitza guztiak
astelehen goizerako*



RAMON BEITIA. Pintxo irabazlea Eibarren.

Errepublikia goguan



**88 urte eta gero,
domekan gogoratuko
dabe II. Errepublikia
aldarrikatu zan eguna**

Gure herriko ondare historikua bildu eta zaintzen dabeneko Ego Ibarra batzordiak jasota dakanari jarraituta, 1931ko apirilaren 14an, goizeko seietan, Alejandro Telleria buru zekela, ziñegotzi hautetsiak kargua hartu eben bilkura publikuan. Eta, Alfonso XIII.a Borboikoaren erretratua kendu eta haren tokian Galan eta Garcia Hernandez kapitaiñen erretratua jarri ondoren, Errepublikia aldarrikatu eben. Holan hartu zetsen aurea Eibarrek estaduko beste herri eta hiriburueri eta holan ekin zetsen ilusiñoz beteta hasi zan sasoi barrixari. Bere sasoi hainbat pribilegixo ekarri zetsazen gertakari historikuaren oihartzunak gaur arte iraun dau eta, gaur egunian be, urtero egitten dira eguna gogoratzekeo ekitaldixak.

Eibarko Sozialistak, urtero lez, II. Errepublikia aldarrikatu zala 88 urte betetzen dirala gogoratuko dabe domekan. Goizeko 11:30xetan Untzagan daken egoitzaren balkoian ("Casa del Pueblo"-n) Errepublikako bandera ipiñiko dabe eta, jarraixan, Txaltxa Zelaira juango dira, 12:00xetan txapliguak bota eta ekitaldixa agurtzera.

Ezker Anitza-IU eta Euskadiko Alderdi Komunista (PCE-EPK) alderdikuak be oin dala egun batzuk Donostian egindako prentsaurrekuan emon eben aditzera II. Errepublikaren aldarrikapena gogoratzekeo ekitaldixetan parte hartzen egongo zirala, bestiak beste Eibarren. Isabel Salud Ezker Anitza-IUko koordinadoriaren berbetan, "apirilaren 14an hiru zutaberen gaiñan eraikitako Errepublikia Federala aldarrikatuko dogu aurten be: aberastasuna alkarbanatzia eta gizartian gehiengua osatzen dabene bihargiñendako bizitza duiña ziurtatuko dabene sozialismua; indarkerixa bari-ko bardintasun erreala ziurtatuko dabene feminismua; eta kapitalismuaren produktzio moduak mehatxatzen dabene naturarekin harmonian bizitzia ziurtatuko dabene ekologismua dira hiru zutabe horrek".

Prentsaurreko berian Arantza Gonzalez Gipuzkoako Ezker Anitza-IUko koordinadora eta Elkarrekin Podemos koaliziñuarekin Batzar Nagusixetarako hautagaixak, eta probintzia maillan antolakuntzarekin arduratzen dan Xabier Sanchez Agirregomezkortak agerraldixa egin eben. Apirilaren 14aren inguruan antolatu dittuen ekitaldixen barri emon eben eta, egingo diranen artian, modu berezixan azpimarratu eben domekan, urtero lez, Ermutik Eibarrera egingo dabene martxa. XIX. Martxa Errepublikarra Ermuko Cardenal Orbe plazatik abiatuko da goizeko 10:00-etan eta Eibarrera eguardixa baiño lehen ailegautuko da, eguardixan. Azken orduko aldaketa

bat tartian, bandera igotzia eta ekitaldi politikua tokiz aldatu bihar izan dabe eta, Untzagan biharrian, Astelena frontoian izango da. Antolatzailliak salatu dabenez, oin dala bi hillabete eta erdi sozialisten gobernuak emondako baimena atzera bota detse, "ekitaldixa zentsuratu nahixan".

Pablo Iglesias eta Alberto Garzon

Izan be, domekan II. Errepublikaren aldarrikapena gogoratzekeo antolatu dabene ekitaldixan Pablo Iglesias Podemosen burua eta Alberto Garzon Ezker Batua alderdiko koordinadora be egongo dira, Eibarko Elkarrekin Podemoseko hautagaixekin eta erkidego maillako buruekin batera.

Eibarko ordezkariak azaldu dabenez, "alderdi morearendako garrantzi sinboliko, historiko eta politiko izugarrixa dauka egun honek eta horregaittik zan Pablo Iglesiasendako horren inportantia ekitaldi hau egittia. Aurten hiri armagiñan II. Errepublikaren 88. urteurrena aldarrikatuko dau Unidas Podemosek". Ekitaldixa 12:00xetan izango da, Astelena frontoian.

Elkarrekin Podemosen Eibarko alkategaixa dan Isabel Fernandez Pejenauteren berbetan, "ohoria da Pablo Iglesias eta Alberto Garzon Eibarren egotia guretako horren inportantia dan egun bat ospatzeko. Bixak ezagutzen dabe primeran Eibarko gen errepublikanua eta eibartarrok dakagun harrotasuna Eibarko Udala 1931ko apirilaren 14an II. Errepublikia aldarrikatzen lehena izatiagaittik".



MAITE ARRESE
(ipuin kontalaria)

- Nolako saioa eskainiko duzue?

Sei ipuin kontatuko ditugu, hiru euskeraz eta beste hiru gaztelaraz. Liburutegikoek horrela eskatu digute, normalean euskeraz bakarrik egiten dugulako. Euskerazko ipuinetatik bi euskal kondaira zaharrei buruzkoak izango dira, euskal mitologiarekin zerikusia dutenak. Gainerako lauak Clarissa Pinkola Esteseke idatzitako 'Otsoekin dabiltzan emakumeak' ateratako ipuinak izango dira, emakumearen ahotsa ahalduntze aldera. Dena dela Mau-k eta biok gure bertsioa eskaintzen dugu. 4-5 urte daramatzagu elkarrekin lanean eta oso gustora gaude. Gainera, pozik irten gara emanaldi bakoitzetik, jendeari ipuinak gustatzen zaizkiola eta barrenera heltzen zaizkiela ikusten dugulako.

- Nora arte sartzen duzue eskua ipuinak zeure egiteko?

Eskua sartzen dugu, garbi dago (barreak). Baina uste dut hori dela ipuin kontalariaren aportazioa. Ipuina geure egitea eta gure erara kontatzea, hau da, gure bertsioa eskaintzea.

- Zuen kasuan, gainera, musikarekin. Musikak balio erantsia ematen dio ipuin kontaketari?

Musikaren aportazioa ezinbestekoa da. Ipuinetan hitzek dute garrantzia, baina musikak laguntza handia ematen du emozioa bideratzeko. Biolinaren soinuarekin eramangarriagoa egi-

“Biolinaren soinuarekin ipuina lehenago iristen da bihotzera”

Maite Arrese ipuin kontalaria eta Mau Ziemkiewicz biolin-jolea da dira 'Emakume eskeletoak', eta 'Basatiaren mintzoa' izeneko saioa eskainiko dute hilaren 24an 19:00etan liburutegian, hilaren 23an ospatuko den Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira. Helduentzako ipuin musikatuak kontatuko dituzte Arrese eta Ziemkiewiczek.

ten da ipuinaren transmisioa. Ipuina edertzen du, apaindu, eta lehenago heltzen da bihotzera.

**- Ipuin kontaketak umeekin lotzen dira sarritan, baina zue-
na helduei zuzenduta dago. Umeentzat edo helduentzat
izan, kontatzeko modua aldatu egiten da?**

Zeozter bai, baina ez hainbeste. Heldu askok uste du ipuinak umeentzako bakarrik direla, baina ez da horrela. “Kasualitatez ikusi dut eta ez nekien hain gustora egongo eta hainbeste emozionatuko nintzenik, horrelako bidaia egin nezakeenik”, esan izan digute. Saio txikiak izaten dira, intimoak, publikoa bertatik bertara dago eta hasieran ez du ematen beste munduko ezer izango denik, baina gero konturatzen zara baietz, zure barrenetik bidaia egin duzula.

**- Helduek barreneko kateak askatu eta umeek bezala go-
zatzen dute ipuin kontaketetan?**

Hori da! Aurreiritzi asko dago eta helduak gure buru estrukturatu eta karratuekin joaten gara ipuin kontaketak entzutera, eta gero sorpresa hartzen dugu.

- Baduzu gomendiorik ikuskizunerara joango denarentzat?

Zalantzak dituenari esango nioke dudarik ez izateko, etortzeko! Gustora egongo gara eta ipuinekin beti ikasten da zerbait. Gure barrenean zerbait pasatuko da, indartsua delako.

Nanoipuin lehiaketako irabazleak atzo jaso zuten saria

Atzo arratsaldean banatu zituzten Eibarko AEK-k eta Udal Euskaltegiak, Udalarekin lankidetzan, antolatutako Nanoipuin lehiaketako sariak. Patxi Lejardi, Mikel Arrillaga, Sorkunde Juaristi eta Junkal Txurrukak osatutako epai-mahaiaren saria Marisa Cid Gibajak jaso zuen, “Ekaitzak argiak itzali ditu” izenburuko lanarekin eta internet bidez boto gehien jaso zituen lana, berriz, Koldo Edorta Carranzak idatzitako “Txotx” izan da. Lehiaketan 43 nanoipuin aurkeztu dira eta 513 boto jaso dira guztira. Lan guztiak eibarko-euskara.eus helbidean irakur daitezke.



Sostoa Karmelitetan abestuko du bihar

Aste Santuaren bueltan, elizako musikari eskainitako kontzertua emango du Sostoa Abesbatzak bihar, 20:00etan, Karmengo Amaren elizan. Mirengu Plazaolak zuzenduta, Sostoa Abesbatzak kontzertu monografikoa egingo du oraingoan: Josu Elberdin (Pasaia, 1976) konpositorearen “Exultate Justi” eta “O rex Glorie” abestuko dituzte, kon-

tzertuan garrantzi berezia izango duen “Missa Ioannes Paulus II” lanarekin batera.

Urte hasieratik dihardute gogor lanean, biharko kontzerturako prestatzen eta, entseguetan hamaika ordu eman eta gero, martxoaren 30ean lau orduko entsegu berezia egin zuen abesbatzak, Josu Elberdin lanaren egilearekin batera.



Gaur abiatuko da "Musika Auzoz Auzo", 19:00etan Sautxiko parkean

Herriko sei auzotara musika eramango duen "Musika Auzoz Auzo" egitasmoaren lehen saioa gaur arratsaldean, 19:00etan hasiko da, Sautxiko goiko parkean, DJ Amoreen eskutik. laz egindakoari jarraituko diote aurreten ere eta, barixaku arratsaldez auzoak musikarekin girotzeko asmoz, gaur hasi eta maiatzaren amaiera bitartean. Gaurko saioa eta gero, maiatzaren Torrequako parkean, Arrateko Andra Mari ikastetxean, Jazinto Olabeko plazan, Bizikleta plazan eta Urkizuko plazan izango dira saioak eta, horiek girotzen, lau DJk (Arno, Arima Cool, Zunbalain eta Xaibor) jardungo dute.



Esther Galarzaren "Urdina beltzez" erakusketa Aquariumean

Gaur 19:00etan zabalduko dute "Urdina beltzez", Esther Galarza artista eibartarraren erakusketa Donostiako Aquariumean, Nautilus aretoan. Jendeak ingurumena eta itsasoa zaintzeak duen garrantziaz jabetzea bilatzen duen erakusketak Galarzak zeramikaz landutako 40 pieza eta formato handiko zortzi akuarela biltzen ditu. Erakusketa maiatzaren 26ra arte egongo da ikusgai eta, bihar arratsaldean, 18:00etatik 20:00etara bitartean joanez gero, artista han egongo da, azalpenak emateko prest.

MICEk bideoklip berria estreinatu du

Miren Narbaiza abeslari eibartarrak MICE proiektua jarri zuen abian Napoka Iria taldeak bere bidea eten zuenean, eta 2017ko azaroan lehen diskoa kaleratu zuen, MICE izenekoa. Urte eta erdi geroago 'Ausardiarik ez' abestiaren bideoklipa estreinatu du orain, Dani Arrizabalaga musikari eta argazkilarik gasteiztarrak zuzendutako lana. Miren Narbaizaren bakarkako proiektuko lehen diskoa zabaltzen duen kantuararen bideoa da.



Pasodobleak joko ditu Bandak

Domekan, 12:30ean, kontzertua emango dute Eibarko Musika Bandakoek. Carlos Sanchez-Barbak zuzenduta, hainbat egileren (R. Talens, Ledesma y Oropesa...) pasodobleak eskainiko dituzte eta, joko dituztenen artean bi ("Ciudad de Eibar" eta "El nuestro") bandaren zuzendariak sortutako lanak izango dira.

Erakusketa Portalean

Apirilaren 28ra arte egongo da Eibarko Artisten Elkartearen erakusketa kolektiboa eta "Eibar BHI - Adin txiki, artista handi" izenburukoa Portalean ikustera joateko aukera. Artisten Elkarteak bazkideek 70 bat artelan bildu dituzte erakusketan eta Eibar BHI ikastetxeko erakusketan, berriz, 2. DBH mailatik hasi eta Batxilergoko 2. Maila bitarteko ikasleek egindako lanak. Martitzenetik domekara bitartean zabalduko dute erakusketa aretoa, 18:30etik 20:30era.

Argazkilaritza tailerra

Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldearen eskutik egingo den "Argazkilaritza Maiatzean" egitarauaren barruan, tailerra egingo da Portalean, maiatzaren 4an (10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara). Gabriel Brau argazkilarik ezagunaren eskutik irudi digitalak zuri-beltzean lantzen ikasteko aukera egongo da. 20 euro balio du eta izena emateko argazkilaritza@deporeibar.com helbidera idatzi behar da.



Zuloagaren obrak Bilbon maiatzetik aurrera

Bilboko Arte Ederren museoak Ignacio Zuloaga eibartarraren ehun obra inguru bildu ditu artistaren atzera begirakoa osatzeko. Maiatzaren 29tik aurrera egongo da ikusgai erakusketa eta ikusi ahal izango diren artelanen %60 bat orain arte inoiz erakutsi gabeak dira, Javier Novo komisarioaren esanetan. Erakusketan margolariaren ibilbidea hiru ataletan banatu dute: Gaztaroa, Zuloaga Zuloagaren aurretik eta Zuloaga Zuloagaren ondoren.

Durangoko Bogoroditsie abesbatzak "Herejia" aurkeztuko du bihar

Bihar, iluntzeko 20:00etan, "Herejia", musika, antzerkia eta dantza uztartzen dituen ikuskizunarekin gozatzeko aukera izango da udaletxeko patioan (sarrera doan). Durangoko Bogoroditsie abesbatzaren eskutik ailegatuko zaigun ikuskizunak XV. mendean, Alonso de Mella frantziskotarrak sustatutako mugimendu heretikoaren kontrako jazarpena du oinarri eta, gertakari historikoetan oinarrituta badago ere, errelatoa modu librean egiten da. Ion Ugarrizaren zuzendaritzapean eta Josu Unzuetairen testuari jarraituta, aipatutako hiru diziplina artistiko horiek ezkondu dituzte, "giro berezia sortu eta ikus-entzulea bertan murgiltzeko asmoz". Antzezleak Ernesto Barrutia eibartarra (inkisidorea) eta Izaskun Iturrioz (sorgina) izango dira. Dantzaz eta koreografiak Beñat Urrutia dantzaria arduratu da. Klabikordiorako moldaketak Roberto Oviedok



egin eta joko ditu. Eta ikuskizunean zehar entzungo diren 12 musika-konposizioak Amaia Urzainkik (lamia) eta Bogoroditsie abesbatzak abestuko dituzte.

Euskera Untzagara plazaratu zuten eusLiderrek

Aurreko barixakuan bikain aritu ziren Eibar BHI, La Salle eta Aldatzeko DBH 3. mailako eusLiderrek, azken hilabeteetan prestatutako ekitaldian. Musika, dantzak eta "eus pintxo" txapelketa tartean, Untzaga plaza Euskalgunea bilakatu zuten. "Ekintza sozial" modura planteatu zuten ekitaldian 70 bat eusLider elkar-tu ziren eta euren ikaskideek ere gustora hartu zuten parte antolatutako probetan. Gainera, Eibar Merkataritza Gune Irekiaren babesari esker, irabazleentzat sariak banatu zituzten. Hurrengo ikasturtean eusLider hauek DBH 4. mailan egongo dira, eta euren landuko dute portaera linguistikoak aldatzeko asmoa duen egitasmo hau 3. mailako ikasleekin. Horretarako, aurten bezala, Eibarren Akebai, AEK-Ahize eta DBHko hiru ikastetxeen laguntza eta Eibarko Udalaren babesa izango dute.



Hamarkadako ibilbidea ospatzeko kontzertua emango du gaur EKG-k

Eibarko Koro Gazteak aurten 10 urte betetzen dituela eta, hori ospatzeko kontzertu berezia eskainiko du gaur, 20:30ean Coliseoan. Juan Bautista Gisasola Musika Eskolaren baitan jaio zen taldea 2009an, abestea gustokoa zuten gazteen artean deialdia egin eta gero. Taldearen 10 urteko ibilbidean, eta beti Elena Martin Lapeyraren zuzendaritzapean, 14 eta 20 urte bitarteko 100 gazte baino gehiago pasatu dira Eibarko Koro Gaztetik. Gaurko emanaldirako hainbat sorpresa iragarri dituzte. Sarrerak 5 euro balio du.

MARITXU OLARRA OLAZAGIRRE (MARITXU ARRATE)

II. URTEURRENA (2017-IV-17)

*"Gure bihotzetan landatu zenduan Maittasunari esker
betetzen dogu juañ zinanetik laga zenduan hutsunia"*


ETXEKOAK





Antzerki saioa gaur **ELGOIBARREN**


Elgoibarko Herriko Antzokian euskarazko antzerki saioa eskainiko dute gaur 20:30ean. Txalo Produzkoak "Rita arrastoan sartzen" lana aurkeztuko du, Begoña Bilbaoren zuzendaritzapean. Joseba Apaolaza eta Aitziber Garmendia dira antzezleak eta obraren egilea Willy Russell da. Frank irakaslea eta Rita ikaslearen harremanean oinarritzen da eta "sarritan ikaslea bera ohi dela irakaslerik onena" erakusten da.



"Cinco horas con Mario" **ERMUAN**

Gaur gaueko 22:15ean Lola Herrera beteranoaren monologoa eskainiko dute Ermua antzokian. Josefina Molinak zuzentzen du Miguel Delibesen lana, 95 minututan irauten duen saioan. Sarrerak 15 eurotan salduko dira. Obra 1966an dago girotuta eta bakarriketa-elkarriketa du abiapuntu, Carmen Sotillori Mario senarra ustekabeen hil zaionean. Emakumeak bakarrik gaubeilatuko duen senarraren gorpuaren aurrean senar-emazteen arteko tirabirak izango dira protagonista.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



hildakoak

- Elena Simon Cid. 91 urte. 2019-IV-9.
- Ramon Sanchez Rodriguez. 90 urte. 2019-IV-10.
- Marcela Corral Sabando. 87 urte. 2019-IV-10.

jaiotakoak

- Nahyra Martin Rodriguez. 2019-IV-1.
- Nor Amar Bourich. 2019-IV-2.
- Muhammad Anas Tariq. 2019-IV-2.

telefono jakingarriak

SOS deiak.....112	Eibar Ospitalea.....943 03 29 00
Pegora.....010	Mendaro ospitala.....943 03 28 00
Udaletxea.....943 70 84 00	Anbulategia.....943 03 25 00
Portalea.....943 70 84 39	Torrekua.....943 03 26 50
Udaltzaingoa.....943 20 15 25	Errepideak.....902 11 20 88
Mankomunitatea.....943 70 07 99	Erzaintza.....943 53 17 00
Debegesa.....943 82 01 10	Eusko Tren.....944 33 33 33
KIUB.....943 20 38 43	Lurraldebus.....900 30 03 40
Epaitegia.....943 03 34 00	Pesa.....900 12 14 00
Iberdrola.....900 17 11 71	Taxiak.....943 20 30 71
Naturgas.....902 12 34 56943 20 13 25
DYA Larrialdiak.....943 46 46 22	Alkohol.Anon.....629 14 18 74
Gurutze Gorria.....943 22 22 22	Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
	Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

farmaziak

- Barixakua 12
 EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
 Zapatua 13
 EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Domeka 14
 EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Astelehena 15
 EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Martitzena 16
 EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Eguaztena 17
 EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- Eguena 18
 EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- Barixakua 19
 EGUNEZ **Zulueta** (San Agustin, 5)
- Zapatua 20
 EGUNEZ **Morgado** (San Agustin, 3)
- Domeka 21
 EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- Astelehena 22
 EGUNEZ **Azkué** (T. Etxebarria, 4)
- Martitzena 23
 EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- Eguaztena 24
 EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Eguena 25
 EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Barixakua 26
 EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI - 2019AN-
Zulueta (San Agustin, 5)

8	1		2		4	
	7	3	9			6
				5	2	
9		6		8		
7						9
			4		1	8
	8		7			
1				9	7	8
	3			5	2	1

SUDOKUA

AURREKOAREN EMATZA

8	5	3	9	6	2	4	1	7
6	2	1	8	7	4	5	3	9
4	9	7	3	5	1	6	2	8
9	1	5	2	4	8	3	7	6
3	4	8	6	1	7	2	9	5
2	7	6	5	9	3	1	8	4
1	6	9	7	2	5	8	4	3
7	8	2	4	3	6	9	5	1
5	3	4	1	8	9	7	6	2

Barixakua 12

ITZULIA

17:19. Arrigorriaga-Arrate etaparen amaiera. Arraten.

EKITALDI POLITIKOA

19:00. EH Bildurena, Arnaldo Otegiarekin. Eibarko Txikiton.

UDABERRI FESTA

19:00. Sorpresa askorekin. Helmet House-n (Blas Etxebarria, 1. Coliseo aldamenean).

MUSIKA AUZOZ AUZO

19:00. DJ Arno, Sautxiko goiko parkean.

PLAZARA DANTZARA

20:00/21:30. Korrika Kulturalaren barruan. Musikariak: Alboka taldea. Dantza-gidaria: Patxi Montero. Eibarko Bizikleta Plazan (euria bada, udaletxeko arkupeetan).

BERTSOLARITZA

20:30. XVII. Plazatik Gaztetxera txapelketako II. fasea. Afaria.
22:30. Bertso-saioa: Antton Aizpurua, Mikel Iturriotz, Peru Aiertza, Aner Peritz, Oihana Arana eta Aitor Tatiegi. Gaztetxean.

KONTZERTUA

20:30. Eibarko Koro Gaztearen kontzertua, 10. urtemuga ospatzeko. 5 euro. Coliseoan.

Zapatua 13

LENTEJA-BILKETA

11:00/14:00. Lesbosen dauden errefuxiatuentzat lentejak batuko dituzte. Untzagako jubilatutuekin.

MANIFESTAZIOA

12:00. Pentsio duinen aldeko eskualde mailakoa. Untzagatik hasita.

GAZTE KILOMETROA

12:30. Hamaiaketakoa.
13:30. Beroketa.
15:00. Korrika
17:00. Merendola eta karaokea, Korrikaren abesti zaharrekina.

19:30. Matraka elektro-txaranga. Urkizuko parkean.
21:30. Kontzertua, Mugi Panderoarekin. Gaztetxean.

ITZULIA

14:27. Eibar-Eibar etaparen hasiera. Calbeton kalean (helmuga 17:30ak aldera, Toribio Etxebarrian).

KORRIKA

14:45. 21. Korrika ailegatuko da Eibarrera, Maltzagatik sartu eta, herri barruan ibilbidea bete ondoren, Bizkaira abiatzeko.

KONTZERTUA

20:00. Sostoa abesbatzaren sakroa: Josu Elberdinen monografikoa. Karmengo Amaren elizan.

MUSIKA-ANTZERKIA

20:00. "Herejia", musika, antzerkia eta dantza uztartzen dituen ikuskizuna, Durangoko Bogoriditsie abesbatzaren eskutik. Doan. Udaletxeko patioan.

KONTZERTUA

23:30. Toc. Ez Dok tabernan.

Domeka 14

KORRIKA

10:15. Gasteizera, Korrikaren amaierako jaira joateko autobusa, AEK-k antolatuta. Untzagatik (bueltakoa 19:00etan).

ASTE SANTUA AZITAINEN

11:00. Erramu Domeka. Mezan erramuen bedeinkapena eta prozesioa. Azitaingo Elizan.

ERREPUBLIKA

11:30. Eibarko sozialisten bandera igozteko Casa del Pueblon.

12:00. Txapligoak eta ekitaldia Txaitxa Zelaian.

ERREPUBLIKA

12:00. II. Errepublikaren aldarrikapena gogoratzeko ekitaldia, Elkarrekin Podemos, Ezker Anitza-IU eta Euskadiko Alderdi Komunistaren (PCE-EPK) eskutik. Ermutik irtego den Martxa Errepublikarrari

ongietorria eta bandera igozteko. Ekitaldi politikoa, Eibarko Elkarrekin Podemosok hautagaien, erkidego mailako buruen eta Pablo Iglesias eta Alberto Garzonen parte-hartzearekin. Astelenan.

KONTZERTUA

12:30. Eibarko Musika Bandaren "Pasodoble kontzertua" (Carlos Sanchez-Barba, R. Talens, Ledesma y Oropesa...), Carlos Sanchez-Barbak zuzenduta. Coliseoan.

Astelehena 15

ELKARRETARATZEA

12:00. Jubilatutuen pentsiodunen elkarretaratzea, pentsio duinak eskatzeko. Untzagana.

Martitzena 16

IKASTEN

16:00/19:00. Puntu-tailerra.
17:00/20:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

Eguena 18

ASTE SANTUA AZITAINEN

17:00. Eguen Santua: Jaunaren Azken Afaria. Azitaingo Elizan.

Barixakua 19

ASTE SANTUA AZITAINEN

17:00. Barixaku Santua: Jaunaren Nekaldia eta Heriotza. Azitaingo Elizan.

Domeka 21

ASTE SANTUA AZITAINEN

11:00. Pazko Domeka: Jaunaren Piztuera. Meza Nagusia. Azitaingo Elizan.

Eguaztena 24

IPUIN MUSIKATUA

19:00. "Basatien Mintzoa" helduentzako ipuin musikatuak, euskeraz, Emakume Eskeletoak-en eskutik. Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira. Liburutegian.

Eguena 25

ANDREN IBILBIDEAK

09:45. Bi orduko ibilbidea, gidari batekin. Jarduera doakoa da eta emakumeei zuzenduta dago. Udaletxeko arkupeetatik abiatuko da.

ODOL-EMATEA

18:30. Odola emateko saioa, odol-emaileentzat. Anbulatorioan.

Erakusketak

Apirilaren 14ra arte:

– XXII. EGUEN ZURI ARGAZKI LEHIAKETAKO LANAK (*Topalekua*)

Apirilaren 28ra arte:

– "EIBAR BHI - ADIN TXIKI, ARTISTA HANDI" (*Portalea*)
– EIBARKO ARTISTEN ELKARTEA (*Portalea*)

Apirilaren 30era arte:

– JOAN SERRANOREN ARGAZKIAK (*Klub Deportiboa*)
– JOSE VILAREN "SAN FRANCISCO" ARGAZKIAK (*Portalea jatetxea*)
– JOSE LUIS IRIGOIENEN "BARTZELONA" ARGAZKIAK (*El Ambigú*)



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, PAULA, hillan 21ian 10 urte egingo dozuzelako. Musu potolo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, LIBE! haraiñegun 4 urte bete zenduazelako. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Nereren partez.



Zorionak, IRAIA, hillaren 6xan 8 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Aneren partez.



Zorionak, NAIÁ Mondragon Urizar, domekan 8 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, ANDONE Agote Gorostizaga domekan 12 urte egingo dozuzelako. Musu haundi bat famelixaren partez.



LIZAR! Etzi 6 urte beteko dira gure artera etorri ziñala, txapeldun! Jarraitu hain zoragarri izaten eta gure bizitzak pozten!




Apirillaren 4an PILARREK 100 urte bete zittuan. Zorionak bere auzokuen partez.




Zorionak, PAULA, hillaren 10ian 8 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, AITOR, domekan 10 urte beteko dozuzelako. Aitxitxa eta amamaren partetik.



Zorionak, ANA, haraiñegun urtiak egin zenduaz-eta!! Show must go on!!"



Zorionak, amama TINA, astelehenian 89 urte bete zenduazelako. Musu pillua famelixa guztiaren partez.



Zorionak, TELMO!!!!, gaur 4 urte betetzen dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Markelen partez!



Ongi etorri, MARINA Arriaga Artetxe, eta zorionak, Jon eta Idoia, famelixa guztiaren partez.



Zorionak, NAHIA, txapeldun, 4 urte bete dozuz-eta! Musu bat famelixaren eta, batez be, OIHAN, Markel eta Beñaten partez.

Zorionak, MARKEL (apirillaren 9xan 11 urte) eta LUKEN (19xan 7 urte) egitten dozuez-eta!! Segi beti bezain potxolo. Musu haundi-haundi bat famelixa guztiaren partez!!



zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

13an: 17:00, 19:45, 22:30
14an: 17:00, 20:00
15ean: 20:30

"Lo dejo cuando quiera"

Zuzendaria: Carlos Theron




(2 ARETOAN)

13an: 17:00, 19:45, 22:30
14an: 17:00, 20:00
15ean: 20:30

"After. Aquí empieza todo"

Zuzendaria: Jenny Gage



(ANTZOKIAN)

13an: 19:45, 22:30
14an: 20:00
15ean: 20:30

"Soinujolearen semea"

Zuzendaria: Pedro Almodovar



(ANTZOKIAN)

13an: 17:00
14an: 17:00,

"Alfonbra magikoa"

Zuzendaria: Karsten Kilerich



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai Julian Etxeberria kalean. 3 logela, 2 egongela, sukaldea eta komuna. 85 m². Kalefakzioarekin. Tel. 615-781231.
- Pisu merkea salgai Santo Domingo de la Calzada erdigunean. Bista ederrak. Kontropuzteko. Tel. 675-803734.

1.2. Errentan

- Emakume arduratsuak logela hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 631-141454.
- Landetako kanping batean mobilhomea alokatzen da uztailean eta abuztuan (hila-bete osoa edo hamabostaldiak). Tel. 628-573783.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Lokala alokagai Urki auzoan. Gazteendako edo biltegi moduan erabiltzeko. 140 m². Margotu berria. Prezio onean. Tel. 643-298749 eta 639-540641.
- Taberna alokatzen da Ipuruia inguruan. Tel. 630-644175.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 643-298749 eta 611-058487. Jocelyn.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ziurtagiriarekin. Tel. 697-730662.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 630-566556.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-881161.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-779050.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 631-950442.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-398328.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 643-933039.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukalde-laguntzaile moduan. Tel. 650-537823.
- Gizonezkoa eskaintzen da tailerrean lan egiteko fresadore moduan (ikastaroa egin da) eta nagusiak zaintzeko. Tel. 688-877998.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 643-324471.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 678-112785.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Orduka. Tel. 631-956574.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 655-094780.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Gerontologikoan lan egiteko ziurtagiriarekin. Tel. 632-644860.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 612-206409.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 681-013032.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 602-158176.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-680410.
- Gizonezkoa eskaintzen da edozein lane-tarako. Tel. 631-680410.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuak barne. Tel. 631-950442.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 603-503689.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 695-466286. Leonardo.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuak barne. Tel. 643-932943.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 602-829409.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko: elkateak, pegorak, etxeak. Autonomia. Tel. 631-790555.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-975260.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baserri-lanak egiteko eta banatzaile moduan. Tel. 631-402535.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 698-456295.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-292690.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 600-667606.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere). Tel. 632-098382.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuetan barne. Tel. 631-199421.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 643-891484.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-729476.
- Mutila eskaintzen da banatzaile jarduteko, kamarero bezala eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 602-590854.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 662-012834.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 643-435780.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Orduka. Esperientziarekin. Tel. 667-060292.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Asteburuak barne. Ordu-tegi malgua. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 652-668877.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Asteburuak barne. Tel. 643-398596.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 602-133120.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-405748.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-506763.

4.2. Langile bila

- Sukaldaria behar dute Ixua jatetxean. Autoa izatea beharrezkoa da. Tel. 699-953003.
- Fisioterapeuta behar da Eibarko zentru pribatu baterako. Bidali curriculum: eider mugica@hotmail.com
- Zerbitzaria behar da Arrateko Tiro Pitxoian asteburu-eratarako. Bidali curriculum: vcorada@gmail.com
- Sukaldari, garbitzaile eta kamareroa behar dute jatetxe batean. Tel. 659-539861.
- Ilea-paindegi-laguntzailea behar da asteburu eta oporretarako. Tel. 619-928881.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- Japoniar irakaslea behar da 0 mailatik hasteko. Tel. 665-708193.
- Ingelesko irakaslea (maila altuarekin) behar da Eibarko akademia baterako. Esperientzia baloratuko da. Bidali curriculum-a: academiameetingpoint@gmail.com

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo eta Selektibitateko klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. Goiz eta arratsalde. Tel. 685-739709.
- Neska euskaldunak klase partikularrak ematen ditu LHko ikasleentzako. Tel. 647-615265.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 688-624326.
- Akordeoi handia salgai. Modelo zaharra. Tel. 605-711422.

6.2. Eman

- 9 asteko txakurkumea oparitzen da, bere osagarri guztiekin. Lehenengo txertoa jasota. Tel. 626-249512.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Ezkon-eraztuna eta belarririk bat aurkitu dira Urkizuko dorreetan. Jabea ...eta kittolitik pasa daiteke.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

Hyundai IONIQ Gama

Autoz mugitzen uzten ez dutenerako



hibrido-entxufagarria

hibridoa

elektrikoa

Ahaztu itzazu hiri handietako kutsadura-protokoloak IONIQ-ekin. Beste inork egin ezin duena egingo duzu zuk: hiri-erdigunetik nola mugitu aukeratuko duzu, **Hyundai IONIQ Gama** delako hiru teknologia eskaintzen dizkizun bakarra: hibridoa, elektrikoa eta hibrido-entxufagarria. ECO bereizgarriarekin **Hyundai IONIQ hibridoa** duzu. Gidatze ekonomikoaz gozatuko duzu, eta emisio baxuekin. Zero emisio bereizgarriarekin **Hyundai IONIQ hibrido-entxufagarria** duzu, kotxe hibridoaren eta elektrikoaren onena batzen duena. Edo, nahiago izanez gero, **Hyundai IONIQ elektrikoa** ere baduzu; emisiorik gabeko gidatzea eta 280 kilometroko autonomiarekin.

Hyundai IONIQ Gama 20.990€-tik aurrera
3.000€-ra arteko diru-laguntzak kudeatzen ditugu Eusko Jaurlaritzaren Renove Planarekin

OARSO CAR
 HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO
 WWW.OARSOCAR.COM

GRUPO EASO MOTOR

ELGOIBAR
 Olaso Polig., 17
 943 74 14 80

OIARTZUN
 Lintzirin Poligonoa, 1
 943 49 48 30

HYUNDAI

8 URTE / 200.000 KM GARANTIA DE BATERIA

5 URTE BERMEA MUGARIK GABE

Hyundai Ioniq Gama HEV: CO2 emisio konbinatuak (gr/km): 103-106. Kontsumo konbinatua (l/100km): 4,5-4,7. WLTP homologazio-ziklo berriaren arabera lortutako kontsumo- eta emisio-balioak. CO2 emisioak (gr/km): 84-85 NEDC korrelatu zikloaren arabera lortutakoak. Hyundai Ioniq EV Gama: CO2 emisio konbinatuak (gr/km): 0 erabileran. Kontsumo elektrikoa (Wh/km): 115. Autonomia: 280 Km*. Hyundai Ioniq PHEV: CO2 emisio konbinatuak (gr/km): 26 erabileran.

Kontsumo elektrikoa (Wh/km): 117. Kontsumo konbinatua (Wh/km): 1,1. Autonomia modu elektrikoan: 63 Km*

PSP gomendagarria Penintsulan eta Balearretan Ioniq 1.6 GDI 103,8kW (141CV) DT KLASA (20.990€) modeloarentzat. BEZ, garrantzia, matxulazio-zerba, sustapen-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta mantentimendu-egonaldiak barne. Hyundai-ra Aldaeta Plana aplikatu daitezke. Hyundai berri bat erosi baino 6 hilabete lehenago gutxienez, erosiaren titulartasunpean erabiltako auto baten truke. Eskaintza hau aplikagarria da Hyundai MOVE produktuarekin finantzatzen duten bezero partikularrentzat, Banco Celestem, S.A.U.-ren bitartez, 13.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin. Finantziarioa finantza-erakundeak aztertu eta onartu beharko du. Finantziarioari lotutako gastuak (Komisioak, Interesak edo Aseguru Programak) ez daude barne; horiek www.hyundai.es/configurador web-ean kontsultatu daitezke. 22.390€ finantzatzeko ez duten bezeroentzat PSP gomendagarria. Eskaintza 2019/02/28ra arte da baliozkoa. Ikusten diren modeloak: IONIQ Style hibridoa, IONIQ Style hibrido-entxufagarria eta IONIQ Style elektrikoa. Mantentimendua autoaren finantziarioari lotuta. Hyundai Motor España S.L.U.-k bere bezeroei eskaintzen dien kilometraje-mugarik gabeko 5 urteko eta tentio altuko bateriarentzat 8 urteko edo 200.000 km-ko (lehenago gertatzen dena) berme komertziala Hyundai sare ofizialean sardutako bitagailuei soilik aplikatuko zaie, zerbitzu-pasaportearen arabera. Kontsultatu itzazu eskaintza, mantentimendu eta berresaren baldintzak Hyundai kontzesionario-sarean edo www.hyundai.es helbidean (*Autonomia ofiziala WLTP Gidatze Ziklo Berriaren arabera. Egiaztatu autonomia gidatze-estiloak, egoera klimatikoak, errepidearen egoerak eta aire giroaren edo berogailuaren erabilerak baldintzatuko dute). Kontsultatu Eusko Jaurlaritzaren Renove Planaren baldintzak hemen: www.eve.eus.

Agenda Helmet
APIRILA ABRIL

12 Ostirala

UDABERRI FESTA

19:00

Sorpresa askorekin!

Denok gonbidatuta zaudete!



Eventos

Asteazkenetan

CURSO DIBUJO CREATIVO MANDIRA STUDIO

18:30-20:30 // Helduentzako

Ocio

23-24 eta 26 Aste santua

MANDALAS INTUITIVOS MANDIRA STUDIO

10:00-12:30 // 8-14 URTE

Ocio

26 eta Maiatzak 3-10-24 Ostirala

MINDFULNESS EIDER PEREZ

18:30-20:00

Salud

27 Larunbata

MASTERCLASS Liquid Flow Vinyasana ESTHER FERNÁNDEZ

10:00-11:30 + Brunch

Salud

28 Igandea

-MUSIKALA- MUGISORMEN TAILERRA KAXA

10:30-12:00 // 3-6 URTE 16:30-19:30 // 7-11 URTE

Ocio

- Eibarren egindako markak
- Moda
- Etxeko osagarriak
- Yoga:
 "Yoga + Jarrera-Adimena"
 "Jarrera berregokitzea"


- Urtebetetzeak
- Formakuntzak
- Dastatzeak
- Hitzaldiak
- Ekitaldi korporatiboak

Eta askoz gehiago!

hello@helmethouse.es
 943 849 310

BLAS ETXEBERRIA 1,
 COLISEO ONDOAN!

moments
 with
 a story
 behind



helmet house

CONCEPT STORE

f @helmethousestore

Esku onetan egotearen ziurtasuna.

20.000tik gora paziente pozik.
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



20 urte baino gehiago zurekin.



Profesional talde handi bat zure
irribarre zaintzen.



Zure irribarre onena geure
laborategian diseinatzen dugu.

R.P.S. 123/17



bista eder

clinica dental - horts klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19 - bajo 20600 eibar

www.bistaeder.es